

Genero-indarkeriaren biktimenezko NBE-ren funtsezko zerbitzuen kalitate-estandarrak egoki zabaltzera bidean

**ljitoen ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza
diseinatzeko diagnostikoa, genero-indarkeriaren biktimei
arreta emateko sistemako profesionalei zuzenduta**



EMAKUNDE

Emakumearen euskal erakunde

www.emakunde.euskadi.eus



AMUGE

Euskal Herriko emakume ijitoen elkarte

www.amuge.org



Izenburua

Genero-indarkeriaren biktimentzako NBE-ren funtsezko zerbitzuen kalitate-estandarrak egoki zabaltzera bidean

Ijitoen ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza diseinatzeko diagnostikoa, genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko sistemako profesionalei zuzenduta

Edizioa

EMAKUNDE, Emakumearen euskal erakundea

Ekipo teknikoa

EMAKUNDE, Emakumearen euskal erakundea eta AMUGE, Euskal Herriko emakume ijitoen elkarte.

Ikertzaile nagusia: Tania Martínez Portugal

Maketazioa eta disenua

Laura Freijo Iglesia

Data

2022ko urria

ISBN

978-84-89630-59-8



Genero-indarkeriaren biktimenezko NBE-ren funtsezko zerbitzuen kalitate-estandarrak egoki zabaltzera bidean

**Ukituen ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza
diseinatzeko diagnostikoa, genero-indarkeriaren biktimei
arreta emateko sistemako profesionalei zuzenduta**



Gure eskerrik zintzoenak proiektuan parte hartu duten emakume ijito guztiei, antiijitotasunik eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeko borroka egiteagatik.



Aurkibidea

01.orr	1. HITZAURREA: Esparru instituzionala eta kontzeptu-esparrua
01.orr	1.1 Esparru instituzionala
03.orr	1.2 Kontzeptu esparrua
07.orr	1.3 Edukien antolamendua
08.orr	2. ANTIIJITOTASUNAREN ETA GENERO-ANTIIJITOTASUNAREN ERAIKUNTZA HISTORIKOA TESTUINGURUAN JARTZEKO BEHARRA
12.orr	3. METODOLOGIA
12.orr	3.1 TXOSTENAREN helburuak
14.orr	3.2 Korrelazio tekniko eta diagnostikoaren faseak
17.orr	3.3 Diagnostikoaren irismena
18.orr	3.4 Kodifikazioa
20.orr	4. EMAITZEN AZTERKETA
20.orr	4.1 EAE-n bizi diren emakume ijitoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten pertzepzioa
25.orr	4.1.1 Genero-indarkeriaren biktima diren eta izan diren emakume ijitoentzako arreta ijito-komunitatearen barruan
32.orr	4.2 Emakume ijitoen pertzepzioa EAE-n genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzuei buruz (BFAZ)
33.orr	4.2.1 Indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko gizarte zerbitzuak (BAGZ)
49.orr	4.2.2 Polizia-zerbitzuak
53.orr	4.2.3 Osasun-zerbitzuak
58.orr	5. ONDORIOAK
64.orr	BIBLIOGRAFIA

01

Hitzaurrea: esparru instituzionala eta kontzeptu-esparrua

1.1 Esparru instituzionala

«Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskatoentzako funtsezko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Munduko Programa» (aurrerantzean, NBE Programa) hainbat erakunderen arteko lankidetza-ekimena da, honako hauen parte-hartzea biltzen duena: NBE Emakumeak, FNUAP (Nazio Batuetako Biztanleriaren Funtza), OME (Osasunaren Mundu Erakundea), PNUD (Nazio Batuen Garapenerako Programa) eta ONUDD (Droga eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoa). Programaren xedea da genero-indarkeria pairatu duten emakume eta neska guztiei erraztasunak ematea da, kalitatezko, funtsezko eta sektore anitzeko zerbitzu multzo koordinatu bat eskuratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aplikatuta, genero-indarkeriaren biktimea izan direnei arreta emateko sistema hobetzea du helburu, biktimea izan diren emakumeei zuzendutako Nazio Batuen (NBE) funtsezko zerbitzuen kalitate-estandarrak zabalduz. Hobekuntza hori posible izateko, esku-hartzeen eta arretaren eremuetan ematen ari den erantzunaren inguruko hausnarketa kolektiboa egin beharra dago. Testuinguru horri lotzen zaio txosten diagnostiko hau: «Genero-indarkeriaren biktimentzako NBEren funtsezko zerbitzuen kalitate-estandarrak egoki zabaltzera bidean (1. fasea): **ljitoen ikuspegia barne hartzen duen prestakuntza diseinatzeko diagnostikoa, genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko sistemako profesionalei zuzenduta**», AMUGE-Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartek Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren finantzaketarekin egindakoa. Lan hau EAEko erakundeentzako tresna bat izatea da asmoa, bereziki, ikerketa honen ondorioetarako, genero-indarkeriaren biktimea izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzu (BFAZ) iritzi zaienentzako¹.

¹ Indarkeriaren biktimea izan diren emakume ijitoengana iristeko eta haiekin esku-hartzeko bide nagusi diren zerbitzuak, polizia- zein justizia-arloaren, gizarte-zerbitzuen eta osasun-arloaren barruan. Esparru kontzeptualean, ikerketa-lanaren parte izan diren programa eta zerbitzu motak zehazten dira.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak aipatzen du genero-indarkeriaren arloko esku-hartzea nazioarteko arretaren kalitate-estandarrekin bat etorri behar dela. Emakundek gure erakundearekin ezarritako lankidetzaren lehen urratsa da emakume ijitoek genero-indarkeriaren eta funtsezko arreta-zerbitzuen inguruan duten pertzepzioa ezagutarazteko zerbitzuotan parte hartzen duten profesionalen artean. AMUGE elkartearen eginkizuna da, oro har, ijito-komunitatearen eskubideak eta garapen integrala defendatzea eta sustatzea, eta, bereziki, EAEko emakume ijitoen arreta, sustapena eta ahalduntzea bultzatzea, gure berezitasun kultural eta etnikoa galdu gabe. Emakume ijitoek historian zehar pairatu dugun eta pairatzen dugun diskriminazio interseksionala da berezitasun horren ifrentzua. Diskriminazio hori ez da hainbat identitate-markatzaileraren batuketaren ondorio soilik²; aitzitik, zapalkuntza modu zehatz bat eragiten du, zeinak kalteberatasun-egoeran jartzen baikaitu: genero-antijitotasuna. Desberdintasun-egoera hori Europako Parlamentuak antijitotasunari aurre egiteko emandako Ebazpenetan islatzen da. Ebazpen horietan azaltzen denez, «Genero eta jatorri etnikoagatiko diskriminazio anizkoitza eta sektoreartekoa da, gizon ijitoek eta emakume ez ijitoek pairatzen dutena baino askoz ere bortitzagoa»³, eta XI. legegintzaldiko (2018-2020) *Ijito Herriarekiko Euskal Estrategian* jasota dago. Bestalde, Berdintasunaren 4/2005 Legeak tratu-berdintasuna jasotzen du printzipio orokorren artean. Hala, EAEko erakundeek nahitaez bermatu behar dute emakumeek nahiz emakume taldeek beren oinarritzko eskubideak baliatzeko aukera izango dutela, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk dituztelako bereizkeria anizkoitza pairatzen badute.

Genero-indarkeria pairatzen duten emakume ijitoek, legeekin, erakundeekin eta zerbitzu publikoekin topo egiten dutenean, horien funtsa eta funtzionamendua kolokan geratzen dira, eta agerian geratzen da horien unibertsaltasunik eza eta egiturak zein horietara iristeko baldintzak gure berezitasun kultural eta etnikoen arabera malgutzeko eta egokitzeko beharra. Gure praktika indibidual eta kolektiboez jabetu ahal izateko, funtsezkoa da desberdintasuna eta diskriminazioa eraikitzeke sustraiak eta moduak ezagutzea. Gure berezitasun kulturala ezagutzea, aitortzea, kontuan hartzea eta errespetatzea ez da soilik gizarte-premia bat; estatuen eta agintaritzaren eskudunen betebeharra ere bada (Nazio Batuen Erakundea, 1992; Europako Parlamentua, 2013, 2017, 2019).

2 Hala nola generoa, etnia, adina, genero-identitatea, sexu-orientazioa, jatorrizko eremu geografikoa edo klasea.

3 Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2013ko abenduaren 10ekoa, Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparruan generoarekin lotutako alderdiei buruzkoa (2013/2066 [INI])

1.2 Kontzeptu-esparrua

Txosten honek NBE Programak ezartzen duen kontzeptu-esparruaren zati handi bat hartzen du, baita diskriminazio anizkoitzarekin eta ikuspegi intersektionalarekin lotutako beste terminologia espezifiko mota bat ere. Atal honetan labur jasota dago tes-tuan agertzen diren kontzeptu eta teknizismo nagusiei emandako esanahia.

Funtsezko zerbitzuak: zerbitzu funtsezko gisa sailkatzen dira arreta sanitarioaren sek-toreak, gizarte-zerbitzuek, polizia-sektoreak eta sektore judizialak genero-indarkeriaren bik-tima izan diren emakumeei eta neskatoei ematen dizkieten oinarritzko zerbitzuak.

- Txosten hau egiteko, indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoengana iris-teko eta haiekin esku-hartzeko bide nagusia diren zerbitzuak hartu dira kontuan; *Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zer-bitzu* (BFAZ) izena eman diegu. Diagnostikotik kanpo utzi dira oso gutxitan edo salbuespenetan erabiltzen diren zerbitzuak (adibidez, Biktimei Laguntzeko Zer-bitzua), zerbitzu eratorriak edo foru- eta erkidego-eremukoak, baita gobernant-zaz arduratzen diren erakunde eta organismoak ere. Kontrastea egiteko, gizar-te-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen kasuan, EAEko hiru hiriburu- eta bulegoak eta larrialdi-zerbitzuak sartu dira nagusiki, horietan kasu gehiago bil daitezke-lakoan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) menpeko Gizarte Larrialdien Koor-dinazioko Foru Zerbitzua da salbuespena. Zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, kontuan hartu dira haren finkapena eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoen kasurik ez dela artatu Donostiako Udaleko udal-programan.
- **Gizarte-zerbitzuak:** Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lehen mai-lako arreta emateko oinarritzko zerbitzuak, programak edo zerbitzu espezifikoak eta gizarte-larrialdietako zerbitzuak.
- **Osasun-zerbitzuak:** Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuko arduradunak eta profesio-nalak.
- **Polizia-zerbitzuak:** Ertzaintzan genero-indarkerian espezializatutako taldee-tako agenteak, lanpostu eta ertzain-etxe estrategikoetan.

Genero-indarkeria: Genero-indarkeria eta emakumeen aurkako indarkeria definitzeko orduan, NBEren *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko adierazpenaren* 1. artikulua hartu da erreferentzia gisa, zeinak honela zehazten baitu: «Generoan oinarri-tutako indarkeria-egintza oro, horren ondorioz emakumeen osasun fisiko, sexual edo psikologikoari kalterik edo sufrimendurik eragiten bazaio edo eragin ahal bazaio, bai-ta egintza horien mehatxuak, gogorkeria edo askatasuna arbitrariotasunez gabetze-

ko prozesua ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen den kontuan hartu gabe». Definizio hori onartu arren, txostenean bikote barneko indarkeria-kasuak bakarrik jaso dira. Hala ere, emakume ijito feministen elkartearen garen aldetik, uste dugu indarkeriaren edo genero-indarkeriaren edo indarkeria matxisten definizioak ez dituela emakume arrazializatuen aurkako indarkeriaren espezifikotasunak barne hartzen. Horregatik, ezinbestekoa da emakume ijitoen aurkako indarkeria egituratzen eta eratzen duten berezitasunak kontuan hartuko dituen ikuspegi interseksionala aplikatzea.

Bigarren mailako biktimizazioa: NBERen arabera, bigarren mailako biktimizazioa ez da egintza baten zuzeneko emaitza, baizik eta erakundeek eta profesionalak biziraun duen biktimari emandako erantzun desgokiaren bidez gertatzen dena.

Funtsezko printzipioak eta ezaugarriak: NBE Programan zenbait jarraibide identifikatu dira (printzipio⁴ eta ezaugarri⁵ komunak), beren jarduna gidatu behar dutenak eta, oro har, «funtsezko zerbitzuen paketea» osatzen dutenak. Proiektu honen diseinua eta helburuak mintzagai dugun emakume taldera egokitzeko asmoz, hau da, analisiaren fokua EAEko emakume ijitoengan zentratzeko asmoz, gure ustez bereziki eragiten dieten printzipio, ezaugarri eta jarraibideei arreta berezia eskaintzea erabaki da. Ikuspegi horretatik abiatuta, programak ezartzen dituen printzipioen artean azpimarratzekoa da **kultura- eta adin-egokitasunaren eta -sentikortasunaren** printzipioa. Printzipio horren arabera, «Adinerako eta kulturarako egokiak eta horiekiko sentikorrak diren funtsezko zerbitzuek emakumeen eta nesken egoera indibidualari eta bizi-esperientziei erantzun behar diete, haien adina, identitatea, sexu-orientazioa, genero-identitatea, jatorri etnikoa eta hizkuntza-lehenetasunak kontuan hartuta. Halaber, erantzun egokia eman behar diete era askotako diskriminazio motei aurre egin behar dieten emakume eta neskatoei –ez bakarrik emakume izateagatik, baita beren arraza, jatorri etniko, kasta, sexu-orientazio, erlijio, desgaitasun, egoera zibil, okupazio edo beste ezaugarri batzuegatik ere– edo indarkeriaren biktima izan *direnei ere*» (1. modulua, NBE programa). Era berean, printzipio horri modu naturalean –baina ez eskusiboan– eragiten diote funtsezko ezaugarri hauek: erabilgarritasuna, moldagarritasuna, egokitasuna, segurtasuna lehenestea eta komunikazio eraginkorra. Jarraian, funtsezko zerbitzuen paketeak horietako bakoitzari buruz egiten duen deskribapena jasota dago:

- **Erabilgarritasuna:** zerbitzuen kantitatea eta kalitatea nahikoak izan behar dira indarkeriaren biktima diren eta izan diren guztientzat, edozein dela ere haien bizilekua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, kasta, klase soziala, adina, erlijioa, hizkuntza eta alfabetatze-maila, sexu-orientazioa, egoera zibila, desgaitasuna, eta migratzaile, errefuxiatu nahiz indigena diren, edo beste zeinahi ezaugarri, kontuan hartu gabe.
- **Moldagarritasuna:** indarkeriak emakume talde eta komunitateetan dituen ondorio bereziak kontuan izan behar dituzte zerbitzuek. Biktimen eta biktima izan direnen beharrei erantzun behar diete, giza eskubideak eta sentsibiltate kulturalaren printzipioak

4 Honako printzipio hauek ezartzen dira: eskubideetan oinarritutako ikuspegia, genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduztzearen sustapena, kultura- eta adin-egokitasuna eta -sentikortasuna, biktimengan/biktima izan direnengan oinarritutako ikuspegia, Segurtasuna lehenestea, eta erasotzaileek kontu ematea (1. modulua, funtsezko zerbitzuen paketearen 2. kapitulua, NBE).

5 Honako ezaugarri hauek ezartzen dira: erabilgarritasuna; irisgarritasuna; moldagarritasuna; egokitasuna; segurtasuna lehenestea; baimen informatua eta konfidentzialtasuna; komunikazioa eta interesdunen egiazko parte-hartzea zerbitzuen diseinuan, egikaritzean eta ebaluazioan; datuen bilketa eta informazioaren kudeaketa; beste sektore eta erakunde batzuekiko lotura koordinazioaren bidez.

bateratuta.

- **Egokitasuna:** emakumeentzako eta neskatoentzako egokiak diren funtsezko zerbitzu deritze haiei egokituta ematen direnei; hau da, haien duintasuna errespetatzen dute, konfidentziasuna bermatzen dute, haien beharrian eta ikuspegiekiko sentikorrak dira eta bigarren mailako biktimizazioa saihesten dute.
- **Segurtasuna lehenestea:** emakumeek eta neskek arrisku ugari dituzte beren segurtasunerako, epe labur, ertain zein luzera. Arrisku horiek espezifikoak dira, emakume eta neskato bakoitzaren inguruabar indibidualen arabera. Arriskuen ebaluazioak eta kudeaketak arrisku-maila murriztu dezakete. Arriskuak ebaluatzeko eta kudeatzeko jardunbide egokiak barne hartzen dituzte gizarte-, osasungintza-, polizia- eta justizia-sektoreen arteko ikuspegi koherenteak eta koordinatuak.
- **Komunikazio eraginkorra:** emakumeek eta neskek jakin behar dute norbait entzuten ari zaiela, zerbitzuek ulertu egiten dituztela beren beharrak eta horiei erantzun egiten dietela. Informazioak eta komunikatzeko moduak emakumeek eta neskatoek funtsezko zerbitzuetara jotzea bultzatzea dezake. Emakumeekiko eta neskatoekiko edozein komunikaziok haien duintasuna sustatu behar du, eta haiekin errespetuz jokatu.

Oinarrizko ezaugarriez gain, analisi-mailan, badira gutxienez beste hiru kontzeptu zeinak ezinbestean definitu behar baitira, eta aurrerago sakon aztertuko ditugunak. Antijitotasunaz, genero-antijitotasunaz eta ikuspegi intersektionalaz ari gara.

Antijitotasuna eta genero-antijitotasuna: Europako Batzordeak argitaratutako Arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako politika orokorraren 13. gomendioak (ECRI), antijitotasunaren zein erromani/ijitoen diskriminazioaren kontra borrokatzeari buruzkoak, honela definitzen du **antijitotasuna**: «*Arrazakeria modu espezifiko bat da, arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historiko batek elikatutako dehumanizazio eta arrazakeria instituzionaleko modu bat, zeina indarkeriaren, beldurraren diskurtsoaren, esplotazioaren eta diskriminazioaren bidez islatzen baita besteak beste*» (ECRI, 2011). Aragoiko Ijito Elkartearen Federazioak (FAGA, 2015) honela definitzen du kontzeptua: «Gizarte maioritarioek eraiki, iraunarazi eta indartutako ideologia, komunikazio modua, eta irudi eta estereotipo sorta» (63. or.). Bi definizioetan azpimarratzen da diskriminazio mota horren eraikuntza historikoa eta izaera ideologikoa.

Txosten honen ondorioetarako, Antijitotasunaren aurkako Aliantzaren (2021) definizioaren alde egiten dugu, osoagoa delakoan. Bertan, aipatu egiten da haren izaera historiko eta ideologikoa, baina definizioan barne hartzen dira (i) haren funtzionamendu soziala edo/eta erreprodukzio-mekanismoa, (ii) testuinguru diskriminatzailea sortzeko erabiltzen dituen tresnak (esentzializazioa, estereotipazioa eta menperatze-egituretatik sortzen diren indarkeriazko praktikak); eta (iii) jazarritako kolektiboengan dituen diskriminazio- eta bizi-ondorioak. Aliantzaren hitzetan:

«Antijitotasuna historikoki eraikitako jarrera iraunkor bat da, eta eguneroko arrazakeria modu sistemikoan kodifikatzen du, “ijito” estigmaren edo horrekin lotutako beste termino batzuen pean etiketatutako gizataldeen aurka. Honako hauek barne hartzen ditu: Lehenik eta behin, talde horien pertzepzio eta deskribapen homogeneousatzailea eta esentzializatzailea. Bigarrenik, horiei ezaugarri espezifiko batzuk esleitzeko joera. Azkenik, diskriminazio-testuinguru horretan sortzen diren gizarte-egitura diskriminatzaileak eta indarkeriazko praktikek es-

tigmatizatutako taldeen degradazioa eta ostrazismoa eragiten dute, eta horrek modu sistematikoan desabantailak eragiten ditu gizarteko bizi-aukerak eskuratzeko orduan» (26. or.).

Genero-antijitotasuna definitzeko, hau da, emakume ijitoak pairatzen dugun zapalkuntza espezifiko definitzeko, ezinbestekoa da antijitotasuna kontzeptua ulertzea. Patricia Caro Mayaren hitzetan, «genero-antijitotasuna estereotipo eta aurreiritzi sexisten gainean eraikitzen da, eta adierazpide ezberdinak hartzen ditu testuinguruaren arabera». Horrela, «ijitoen aurkako gorrotoaren diskurtsoa bazterketa-mekanismo sexista horretan harrapatuta geratzen da, eta horretaz blai geratzen dira diskurtsoak, politika publikoak, komunikabideak, publizitatea, testuliburuak edo artikulak akademikoak»⁶.

Kataluniako Ijitoen Elkarteen Federazioak (FAGC) egindako «*Guía práctica antigitanismo de género: Mujeres gitanas ante las injusticias*» (2021) lanaren arabera, diskriminazio mota hori hiru adierazpidetan ikusarazten da gutxienez: historikoa, soziala eta instituzionala. Lehenik eta behin, gizarte maioritarioak historian zehar ijito-herriari egindako arbuio sistematikoak eta errepresaliek arrakala handia sortu dute bi kulturen artean (ijitoenaren eta maioritarioaren artean), eta jarrera horrek oraindik ere eragina du pertzepzioetan, aurreiritzietan eta harremana izateko moduetan. Bigarrenik, emakume ijitoak irudi estereotipatu eta aurreiritzizkoen bidez erretratatzeko dira jendartearen, eta irudi horiek ondorio gogorrak dituzte beren bizitzetan. Azkenik, instituzio-arloan, bigarren mailako herritar gisa tratatzen dira emakume ijitoak, urratu egiten baitira haien oinarritzko giza eskubideak eta oinarritzko premiak, segregazioaren eta pobreziaren bidez, zerbitzu eta instalazio publikoetarako (hezkuntza, enplegua, etxebizitza, jabetza eta, oro har, aukerak) sarbide mugatuaren bidez, edo gorroto-diskurtso eta -delituekiko esposizioaren bidez, besteak beste. Garrantzitsua da gogoraraztea adierazpide horiek ez direla bereiz hartu behar, baizik eta «*bestetasuna*» eraikitzeko prozesu baten parte gisa. Hau da, *besteak* eraikitzeko modu bat da, haien nolakotasunak hegemoniko gisa katalogatu direnen azpitik daudela erakutsi nahi duten kategoriekin izendatzen eta definitzen ditugun *beste* horiek eraikitzeko modu bat (Fandiño, 2014). Beraz, mende luzez osatutako eraikuntza edo *erabateko gertakari soziala*⁷ litzateke. Hori dela eta, estereotipoak, aurreiritziak eta beste diskriminazio modu zorrotzago batzuk finkatu dira.

Interseksionalitatea: Interseksionalitatea ikuspegi edo *sentsibiltate analitikoa* da (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013), eta desberdintasun-ardatzen arteko harremanen konplexutasunaz ohartarazten gaitu. Analisi interseksionalarekin, desberdintasun espezifiko bat eragiten duten zapalkuntza-kategoria ugari identifikatu ditzakegu. Nahiz eta bakarra ez izan, emakume ijitoekiko diskriminazio interseksionalaren ezaugarri nagusia da generoaren eta arrazializazioaren / desberdintasun etniko eta kulturalaren arteko elkarrekintza. Hala, FAGCk (2021) ohartarazi du emakume ijitoek diskriminazio (gutxienez) hirukoitza pairatzen dutela: emakume izateagatik, ijito izateagatik

⁶ Bartzelonako Udalaren webgunean jasota dagoen Patricia Caro Mayaren «La brecha kalí: raíces y consecuencias del antijitotismo de género» artikulutik atera da.

⁷ Aguilarrek eta Buraschik (2019) Marcel Maussen jatorrizko esamoldea erabiltzen dute, «erabateko gertakari soziala»; «ikuspegi holistikoa batetik bakarrik uler daitezkeen fenomeno sozialak dira, arlo sozialaren hainbat dimentsio biltzen baitituzte: dimentsio moralak, historikoa, politikoa, ekonomikoa, psikologikoa, kulturala, etab.» (13. or.).

eta pobrea izateagatik. Azken zapalkuntza-ardatz horri dagokionez, «*Nos persiguen. La criminalización hacia las mujeres gitanas en establecimientos comerciales*» txostenean azaltzen denez, «Espainiar Estatuan bizi diren 4 ijitotik ia 3 gizarte-bazterkeria egoeran daude, eta horietatik % 54 bazterketa larrian (...), EAEko hiru ijito-familietatik bik zailtasunak dituzte beren oinarritzko premiak asetzeko, eta pobrezia-kasu larrienak % 42,9 dira; zifra hori EAEko gainerako biztanleenaren bikoitza da» (AMUGE, 2021). Lan honetan, hiru ardatz horien arteko intersekzioak sortzen dituen diskriminazio moduak aztertuko ditugu, zeintzuek desberdintasuna eragiten baitute BFAZekin dituzten harremanetan.

1.3 Edukien antolamendua

Hitzaurrearen ondoren, bigarren atalean, «ANTI-IJITOTASUNAREN ETA GENERO-ANTI-IJITOTASUNAREN ERAIKUNTZA HISTORIKOA TESTUINGURUAN JARTZEKO BEHARRA», antiijitotasuna eta genero-antiijitotasuna jorratzen dira ikuspegi historikotik, horien egungo adierazpideak eta esanahiak ulertzeko ezinbesteko urratsa baita. Jarraian, hirugarren atalean, «METODOLOGIA», ikerketa-prozesuan hartutako erabaki metodologikoak azaltzen dira. Laugarren atalak, «DATUEN ANALISIA», hiru epigrafe nagusi ditu. Lehenengoak emakume ijitoek genero-indarkeriari buruz duten pertzepzioa jorratzen du. Bigarrenean, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoek beren komunitatean jasotzen duten arreta aztertzen da. Eta hirugarrenean, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzuetatik (BFAZ, azterlan honetarako kontuan hartu direnak) jasotzen duten arreta. Azken epigrafe horretan, gainera, zerbitzu horietako profesionalekin egindako kontrastea jasotzen da. Azkenik, «ONDORIOAK» atala dago.

02

Antijitotasunaren eta genero-antijitotasunaren eraikuntza historikoa testuinguruan jartzeko beharra

Antijitotasunaren kontzeptua zehaztean aurreratu bezala, funtsezkoa da ikuspegi historikoaz jabetzea eta horrek «ijitotasuna» estigmaren eraikuntzan izan duen eragina ulertzea. Txosten honen xedea ez da gure herriaren historian gure osotasun fisiko eta kolektiboaren aurkako eraso larri izan diren gertaera historiko, politiko eta sozial guztien azalpen zehatza egitea. Hala ere, estatu-aparatuak etengabe egindako edo babestutako erasoek talde zapaldu gisa eratu gaituzte, eta nabarmen baldintzatuko dute gizarte majoritarioaren eta haren instituzioenganako dugun pertzepzioa eta erantzuna. María Rodó Záratek dioenez(2021), arraza- edo kultura-arrazoiengatiko diskriminazioa pairatzen duten gutxiengoek gaur egun duten subjektu zapalduaren posizioa ezin da zabal eta konplexuagoak diren beste prozesu batzuetatik bereizi, denbora-dimentsioa ez ezik, dimentsio ekonomiko eta politikoa ere hartzen baitituzte:

«Indarkeriak, desberdintasunak, diskriminazioak eta jatorri, etnia, arrazializazio edo identitate erlijiosoari lotutako estereotipo negatiboen aplikazioak zerikusia du kolonialismoarekin, inperialismoarekin eta zurien nagusitasunarekin. Menperatze-sistema horiek espoliazio-, esklabotza- eta esplotazio-prozesu historikoen ondorio dira, eta gaur egun hainbat arrazakeria, xenofobia eta harreman ekonomiko eta politiko motatan gauzatzen dira gure testuinguruan» (49. or.).

Gure ustez, beraz, ezinbestekoa da testuinguruari buruzko datuak ematea, narratiba⁸ berreskuratzeke eta erdiguneko posizio batetik behatzen gaituen irakurlea (des)kokatzeko.

⁸ Indarkeria epistemikoari aurre egiteko modu bat da, hau da, botereak ezagutza sortzeko beste modu batzuk bereganatu, baldintzatu eta deuseztatzeke baliatzen duenari.

Hainbat egileren lanak bat datoz: ijito-⁹ edo erromani-herriarekiko diskriminazio historiakoaren bereizgarria da bipolarotasuna (Garces, 2016; Cortes, Caro eta End, 2021). Alde batetik, mendeetan zehar estereotipatuta irudikatu da, gizarte maioritarioak moralki gaitzesgarritzat jotzen duen guztiaren edukitzaile gisa. Bestetik, ijitoen kolektiboak bere kulturaren/existentziaren isilaraztea edo ukatzea pairatu du, subjektu kolektibo gisa desegin nahi zituzten jarduera eta diskurtsoen bidez. Bi alderdi horiek kontraesankorrak dira elkarren artean, eta ijitoen aurkako hainbat lege eta pragmatikatan islatu izan dira historia modernoan zehar.

Ijito-herria XV. mendearen amaieran iritsi zen Espainiara, Europako estatu gehienak kultura homogeneizatzeko neurri erradikalak abian jartzen hasi zirenean, kohesio politiko handiagoa lortze aldera (Sierra eta Río Ruiz, 2017). Aro modernoaren hasieran pairatu zuen jazarpena eta esplotazioa «Iparralde Globalaren barneko botere-harremant berriei datxekien beharrianen arabera diziiplina forma berrien aplikazioaren» zati gisa hartu izan da (Garces, 2016:232). Horrela, sortzen ari ziren estatu-nazioek beren boterearen zati bat metatu zuten beren mugen barruan, ijito-herriaren jazarpen eta menperatzearen bidez, eta ijitoak langile esklabo bihurtuz. Hainbat Pragmatikaren (legeak) eta estatuaren errepresio-indarren bidez egin zen hori, baina baita indarkeria epistemikoaren bidez¹⁰ eta garaiko moral katolikoaren nahitaezko asimilazioaren bidez ere, zeinak nabarmen egiten baitzuen talka emakume ijitoen rolaekin eta jarrerekin.

Bi errepresio eta deuseztatze modu horien adibide batzuk aipatzearren¹¹, 1499ko Errege Pragmatika aipatuko dugu, zeinak jauntxoek zerbitzura behin betiko jar zitezela agintzen baitzuen, zartada eta erbesteratze zigorraren pean. Geroago, «ugazaba eta ogibide ezagunik gabeko» ijito bat topatu gero, sei urtez galeretara zigortzen zuten. Helios Garcés (2016) jasotzen duenez, emakume ijito asko, kide eta senideengandik indarrez bananduta, galerianoek bila ibiltzen ziren familien zama bere gain hartuta, ahaideak noiz askatuko. Emakumeoi, ekimen horiek eta beste batzuk tarteko, zigor espezifikoak ezarri zitzaizkien, hala nola Toledoko Gorteek 1560an aldarrikatutakoa, zeinaren arabera zigorrak eta erbesteratzea ezartzen baitzitzaien «ijito arropaz jantzita eta ijitoen antzera» ibiltzeagatik.

Emakume ijitoek pairatu zuten errepresio espezifikoak arraza-arazotik haratago doan osagai bat hartzen du, garai hartan esleitutako genero-rolak urratzeagatik zigortzen baititu. Patricia Carok eta Yurena Montoyak (2021) azaltzen dutenez, ijito-herria penintsulan sartu zenetik (XV.) emakumeak nabarmendu egin ziren; izan ere, espazio publikoa hartu zuten, ijito ez ziren besteekiko harremanetako askoz arduratu ziren eta beren sare ekonomiko propioak ezarri zituzten. Adierazpen horiek guztiek mehatxupean jartzen zuten Espainiako estatuak, Eliza Katolikoaren oniritziarekin, «emakume

⁹ «Ijito-herria» terminoa modu kontzientean erabiltzea erabaki dugu EAEn errotuta dauden eta txosten honen xede diren biztanle ijitoak izendatzeko, nahiz eta sarritan gutxiespenez erabiltzen den terminoa izan. Hala eta guztiz ere, ez diogu izkin egin nahi horren inguruko eztabaidari (Oprea eta Matache, 2021), ezta erromanien heterogeneotasun etnikoa ukatu nahi ere.

¹⁰ Gutxiagotze epistemikoaz haratago (Garces, 2016), *Antijitotasunaren aurkako Aliantzak* honako hau dio: «Heriotzek, faktore ekonomiko eta sozialetan eragina izateaz gain, baliabide kulturalak, tradizioak, aniztasuna eta hizkuntza-trebetasunak galtzea ere ekarri zuten. Horrek guztiak eragina du gaur egun erromanien nortasuna arpillatzeko eran» (2021: 28-29).

¹¹ Adibide horietan eta beste batzuetan sakontzeko, ikusi Garcésen lana (2016), «El racismo *antirom*/antigitano y la opción decolonial», 25. zenbakiko *Tabula rasa* aldizkarian.

eredugarriei» inposatu nahi zien identitate femeninoa. Erantzuna luze gabe etorri zen, eta «emakume erromaniek espazio publikoetan zuten presentzia, haien lidergoa eta lan kooperatiboak zigortu egin zituzten, zartadak emanez edota morala zuzentzeko etxeetan morroi sartuz» (2021:272). Horrela, Garcések ondorioztatzen duenez, «gizonak arrazializatzen zituzten, eta emakumeak arrazializatu eta mendeko bihurtu» (2016: 234).

1572ko abenduaren 19ko Errege Zedularen bidez, areagotu egin zen ijitoen esplotazioa. Haien jazarpen eta ehiza aktiboaren bitartez, gizon ijitoak esklabo bihurtu ziren Puerto de Santa Mariako galerianoetan, Lepantoko bataila handiaren aurretik. XVIII. mendearen erdialderako, ijito-herriaren desberdintasunekiko errezeloak eta mespretxua asko zabaldu ziren herritar guztiengan. 1748an, probintziako ermitetan erlijio-asiloa ukatzea erabaki zen, eta galeretarako zigorra indargabetu, Ijitoen Espetxe Orokorriari edo Ijitoen Sarekada Handiari bide emateko, 1749ko uztailaren 30ean. Garcések kontatzen duenez, 12.000 pertsona inguru harrapatu eta kate eta girgiluekin giltzapetu zituzten, eta gizon asko armategietara bidali zituzten, itsasontzien eraikuntzan lan egitera behartuta. Emakumeak, 12 urtetik beherakoekin batera, lantegi-espetxeetan erabili zituzten, hil artean haien eta beren familien mantenuagatik ordaintzera behartuta.

XIX. eta XX. mendeetan zehar, ijitoen aurkako legeek kolektibo kaltegarri eta kriminalaren estereotipoan oinarritzen jarraitu zuten. Horren adibide da Frankismoaren ondorioz sortutako *Alper eta gaizkileen Legea*, zeinak, Guardia Zibilari esleitutako lehendabiziko funtzioen artean, ijitoen zaintza zorrotz eta espezifiko egitera derrigortzen baitzuen –eta ez zen 1978ra arte abolitu– (Gómez Alfaro, 2014). Kriminalizazio- eta deshumanizazio-prozesu hori (Nicolae, 2007) gaur egunera arte luzatu da, eta Antijitotasunaren aurkako Aliantzak (2021) «belaunaldiz gaindiko trauma» esaten dio:

«Genozidioaren traumaz gain, ulertu behar da gizonen, emakumeen eta haurren esklabotzaren gertakari historikoek edo emakume erromanien nahitaezko antzutzekak trauma larri bat eragiten dutela, belaunaldi batetik bestera pasatzen dena, belaunaldiz gaindikoa dena, eta autoirudiari eta autoestimuari eragiten diona» (29. or.)

Europar, gaur egun, jatorri etnikoak eragindako diskriminazio- eta eraso-tasarik handienak biltzen jarraitzen du ijito-herriak. Oinarritzko Eskubideen Europako Agentziaren (FRA) arabera, diskriminazio hori modu berezian islatzen da enplegua lortzeko zailtasunetan, pobrezia-mailetan, gizarte-bazterkeriaren mailan edo egunerokoan pairatzen duten kriminalizazioan, dela polizia-kidegoen aldetik¹², dela biztanleria maioritarioaren aldetik (FRA, 2017). Sandra Herediaren hitzetan, XXI. mendeko arazo kezkagarrienetako baten aurrean gaude, eta arrazakeria modu berriak berpiztu dira, zeinak «jendarte osoaren ikuspegi etnozentristatik sortzen baitira, munduko kultura-aniztasunaz tutik ere ez jakiteagatik» (2021:7).

Caro eta Montoyak egindako galdera erretorikoari erantzuteko («Emakume erromanientzako espazio seguru gisa finkatzeko bezain libre al dago antijitotasunetik ijito ez

12 Poliziak zenbatetan geldiarazten dituen, eta zer tratatu ematen dien.

direnen gizartea?» [2021:273]), hamaika gertakari aipa ditzakegu. Duela gutxi, AMUGEk *testing* bat egin zuen Bizkaiko 20 merkataritza-gunetan, emakume ijitoek saltokietan pairatzen duten diskriminazio-tratua ikusarazteko. Emaizta gisa ondorioztatu zen parte hartu zuten emakume ijito guztiek, adina eta itxura fisikoa gorabehera, tratatu diskriminatzailea pairatu zutela. Horrela, agerian geratu zen «emakume ijitoekiko diskriminazioa orokorra, etengabea eta egunerokoa dela, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea eragozten duela eta, ondorioz, oinarritzko eskubideak baliatzea zailtzen duela eta, besteak beste, indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea mugatzen» (AMUGE, 2021). Tamara Claveriaren hitzetan, atal honen hasieran aipatu dugun bipolar-tasuna, diskriminazio mota espezifiko horren ezaugarria dena, honela adierazten da gaur egun: «Ijitotasuna txarra delako sentimendua barneratuta edukitzeak aukera gutxi uzten dizkigu: geure nortasuna disimulatu behar dugu, identifikatuak ez izateko, ala estereotipo hori onartu, eta jendeak nahi bezalako ijitoak izan. Kriminalizatuak edo otzanak. Eta ez, ez gara horrelako ezer; subjektu politikoak gara» (AMUGE, 2021).

Laburbilduz, emakume ijitoen egungo genero-posizioa baldintzatuta dago; lehenik eta behin, aro modernoan nagusi diren genero-rolen nahitaezko asimilazioagatik. Bigarrenik, historian zehar gizon zein emakumei ukatu zaizkien askatasunengatik; ijito-herria desberdintasun¹³ eta bazterketa-egoerara kondenatzen baitu. Desberdintasun-egoera horren aurrean, ijito-herriak bere burua antolatu eta babesteko estrategia kolektiboak formulatu ditu, eta horrek bereizten du gizarte maioritarioaren balio indibidualistetatik. Zentzu horretan, Carok eta Montoyak (2021) azpimarratu dute zeinen garrantzitsua den familiaren osagaia, emakume ijitoei eredia eta babesa emateko: «Feminismo hegemonikoak indibidualismoa sartzen digu buruan, baina guk batasuna jartzen dugu erdigunean, eta batasun horren gakoa familia da. Horregatik, ulertu behar da ezkontza eta familia «guztiak bat» izateko modua direla (273. or.). Lotura hori desegiten saiatzeak, kasu askotan botere publikoen jardunak horixe interpretatzen edo eskatzen duenez, mesfidantza, beldurra, arbuioa edo intsumisioa eragin dezake.

Bat egite horrek gizonezko ijitoak barne hartu behar ditu nahitaez. Eremu publikoan ez dituzte gizonezko ez-ijitoen botere-maila berberak; aitzitik, gizarte maioritarioaren diskriminazioaren eta bazterketaren biktima dira. Duela gutxi idatzitako artikulua batean¹⁴, Silvia Agüero ekintzaile feminista eta komunikatzaile ijitoak honako hau azaldu zuen: «Normalean ez ditut gizon ijitoak kritikatzeko, haiek ez direlako emakume guztien aurkako sistema patriarkala sostengatzen, sendotzen, indartzen eta iraunarazten duten botere-postuetan egoten». Hori dela eta, gizarte maioritarioaren bitarteko polizial eta judizialek berriro «auto-birkriminalizatu»¹⁵ ditzakeenez, horien jarduna taldearen aurkako iraintzat hartzen da, zigorrez beteriko mendeetako errepresioan eraikitako printzipio, balio eta autobabeserako formulen aurka doalako.

Metodologia da prozedura arrazionalen multzoa, eta horiek bideratuko gaituzte lanean planteatutako xedeak eta helburuak lortzeko, batik bat ikerketan. Diagnostikoaren

¹³ Amartya Sen ekonomialariak garapena defendatzen du askatasunen praktika eraginkorraren ondorio gisa (askatasun politikoak, zerbitzu ekonomikoak, aukera sozialak, gardentasun-bermeak edo segurtasun babeslea; horiek ez izateak edo oso mugatuta baliatu ahal izateak desberdintasuna sortzen du (*Development as freedom*, 1993)).

¹⁴ Agüero, Silvia (2021/12/15) «*Activista gitana feminista defiende a los machos gitanos*», pikaramagazine.com webgunean.

¹⁵ Adibidez, ijito bikote ezkondu batzuen artean genero-indarkeriagatik salaketa poliziala jartzea.

03

Metodologia

azken helburua bada ere ezagutzea zer iritzi duten emakume ijitoek genero-indarkeria-ri buruz eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzeko funtsezko zerbitzuei buruz, ez da ariketa deskribatzaile hutsa: aztergaia (edo aztergaiak) lan kua-
litatibo eta esplikatzaile baten bidez hobeto ezagutzea eta ulertzea da gure helburua, emakume ijitoen errealitate espezifikotik abiatuta prestakuntza bat diseinatu ahal iza-
teko, eta, era berean, BFAZetako profesionalen beharrianekin bat etortzeko.

3.1 TXOSTENAREN helburuak

Pertzepzioa neurtzea zen lan honen helburua, eta, ondorioz, ezinbestean aztertu behar ziren elkarreragin sozialak (errealak nahiz sinbolikoak) eraginda sortzen diren uste, sentazio eta inpresio materialak –indibidualak zein kolektiboak–, aztergai edo fe-
nomeno jakin batekin; kasu honetan, genero-indarkeria eta BFAZen aldetik jasotzen den arreta. Uste eta inpresio horiek ez dira inoiz objektiboak izango. Modu partzialean islatuko dira, interpretazio-esparruen eraikuntza subjektiboak kontuan hartuta (dina-
mikoa eta, beraz, unean unekoa eta lekuan lekukoa); kasu honetan, emakume ijitoek eta BFAZen barruan arreta ematen duten pertsonak eraikitako esparruak islatuko dira. Horregatik da garrantzitsua –aurrerago azalduko dugun moduan– honelako ikerketen irismena, mugak eta inguruabarrak agerian uztea.

Txosten honen helburu orokorra **EAEn genero-indarkeriaren biktima diren eta izan di-
ren emakumeei arreta emateko sistema hobetzen laguntzea bada ere, emakumeen
aurkako indarkeria-egoeren aurrean ijito-komunitatearen kultura eta jardunbideak**

ezagutuz/aitortuz, ezinbestekoa da helburu hori operatibizatzea. Zentzu horretan, hauek dira lan espezifiko honen helburuak:

- EAEn bizi diren emakume ijitoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten pertzepzioa ezagutzea, eta indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzuen (BFAZ) aldetik jasotzen duten arretaren inguruan zer iritzi duten ezagutzea.
- BFAZetako profesionalak gaitzeko prestakuntza espezifikoa diseinatzeko beharrezkoak diren inputak identifikatzea.

Ikertu beharreko objektuaz harago (*zer*), ezin dugu alde batera utzi nor edo nortzuk garen ikertzaileak, nondik eta nola ari garen:

- **Nola?** Diagnostikoaren helburua da erakundeei kalitate handiko informazioa ematea, erabaki publikoetan eragiteko, baina emakumeen parte-hartzeak beren eskubideak eta ahalduak-prozesua indartzeko balio dezan.
- **Nor?** Garrantzitsua da ijitoen erakunde sozial bat izatea proiektuaren buru, geure errealitatearen berri emateko eta informazioa transmititzeko bideak ezartzeko. Ezinbesteko eragile politikoak gara ijito-komunitatearen eta kultura instituzional maioritarioaren arteko elkarriketa eta bitartekaritza.
- **Nondik?** Gure kultura-berezitasunak aintzat hartu eta behar bezala jorratuko dituen bizikidetzaren eredu bat bultzatzen laguntzeko borondatea da gure abiapuntua. Eta arrazakeriaren aurkako ikuspegi feministatik egiten dugu lan.

Oinarri horiek argi jasota egon behar dute diseinuan, erabaki metodologikoetan eta teknikoetan. Horretarako, ikerketa feministak eskaintzen dizkigun ikuspegi eta tresna batzuk jokoan jartzea erabaki dugu. Lehenik eta behin, *emakume ijitoak erdigunean jartzea*. Indarkeria pairatu eta pairatzen dutenen ahotsak eta gorputzak izugarri lagungarriak izan dira eta dira fenomeno honen alderdi anitzak ikusarazteko eta horri aurre egiteko baliabideak sortzeko orduan (Martínez Portugal, 2020). Ekintza horrek aldatu-eragile bihurtzen ditu, eta ahalduak- eta erreparazio-prozesuan lagun dezake. Erakundeentzat eta arrazializatu gabeko herritarrentzat, emakume ijitoak *besteak* gara, hau da, «egitura sozial jakin batean gorputzutako eta txertatutako subjektuak hara (beraz, subjektu sexualizatua, arrazializatua, etab.), ezagutza zehatzak sortzen dituen, baina ez horregatik besteak baino objektibotasun txikiagokoak» (Malo, 2004: 26-27). Ezagutza eraikitze gure esperientziatik abiatuta, gai politiko bihurtzen da, demokratizazio sozialeko praktika.

Bigarrenik, *zaintza bultzatzea parte-hartzaileekin kontaktuan egon eta lan egin bitartean*. Espazio seguruak sortzeko, haiek aukeratu behar dute elkarriketa non eta noiz egin; eta entzumenak aktiboa eta errespetuzkoa izan behar du. Gainera, proiektuaren partaide egin behar dira: behar bezala jakinarazi behar zaizkie helburuak eta horiek lortzeko duten rola. Halaber, emaitzak helarazi behar zaizkie, haien hitzak, iritziak eta

ekarpenak behar bezala jaso direla egiaztatzeko. Gai hau informazioa biltzeko teknikaren garapen praktikoaz harago doa: oso kontuan hartu behar da bai diseinu metodologikoa egiterakoan, bai parte-hartzaileekin aurrez aurre hitz egitean, bai emaitzen aurkezpena prestatzerakoan.

Hirugarrenik, *ikuspegi interseksionala* dago. Ikuspegi horretan, parte-hartzailea kokatzeko testuinguru-datuak ematen dituzten ikerketa-teknikak edo -metodoak erabili behar dira. Horregatik aukeratu ditugu teknika kualitatiboak (elkarrizketa, eztabaida-taldea), haien esperientziak, emozioak eta inguruabar pertsonalak sakontasun handiagoz jasotzen dituztelako. Kontzeptuaren definizioan esan bezala, ikuspegi hori aplikatzeko aukeratu dugun testuinguruan, generoa eta desberdintasun etniko eta kulturala dira gehien nabarmentzen diren ardatzak. Horien artean *intentsifikazio*-harremana egon daiteke, hau da, ardatz batek bestearen ondorioak areagotu ditzake.

Hurrengo epigrafean xehetasun handiagoz deskribatuta daude diagnostikoaren faseak, informazioa biltzeko erabilitako teknikak eta txostenaren irismena.

3.2 Korrelazio teknika eta diagnostikoaren faseak

Diseinu metodologikoa bi fase nagusitan egituratu da: lehen fasea ikerketako bi galderen erantzunarekin lotuta dago, eta bigarren fasea EAEn identifikatutako BFAZetako langile teknikoekin alderatzean zentratuta dago.

Informazioa biltzeko teknika nagusiak Eztabaida-taldeak eta Elkarrizketa erdi-egitura-tuak izan dira. Aurretiazko hiru elkarrizketa ere egin dira (esploratze-elkarrizketak), aztergaia azaleratzeko eta diagnostikoaren diseinuari eta irismenari buruzko erabakiak hartzeko orduan abiapuntu izango den oinarritzko esparru bat sortzeko. Azkenik, galdetegi ireki bat diseinatu da, funtsezko zerbitzuetako ordezkariekin kontraste teknika egite aldera.

Gainera, koordinazio-bilerak egin dira aldizka, AMUGE elkarteko kideek eta kontratatutako ikertzaileen parte-hartzea izan dutenak. Bilera horien helburua diseinu metodologikoa orientatzea eta baliozkotzea izan da (profilak identifikatzea, galdetegiak diseinatzea...), baita aurretiazko ondorio batzuk kontrastatzea ere. Kulturarteko talde batean pertzepzioak, kezkak, zalantzak eta jakintzak entzutean eta bateratzean oinarritutako hausnarketa kolektibo horri esker, azaltzen ari garen errealitate konplexua ulertu eta transmititu dezakegu.

Jarraian ageri den koadroan jasota daude diagnostikoaren faseak, ikerketa-galderak eta horiekin lotutako bilketa-teknikak.

1. koadroa: Faseen laburpena eta korrelazio teknika.

0 FASEA	Esploratze-elkarrizketak	Hasierako edo esploratze-elkarrizketak informatzaile estrategikoekin: - 1 esploratze-elkarrizketa (EE) genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumei laguntzeko funtsezko zerbitzuetako aditu batekin (sare publikoak), ikuspegi komunitarioa kontuan hartuta. - 1EE ijitoen mundu-ikuskerako aditu batekin, eta lana indarkeriaren biktimak diren emakumeekin (Ijito sareak). - 1EE ijito-komunitatean gako den informatzaile batekin (Bideratzailea).	3EE
1. FASEA	1. galdera: Zer-nolako pertzepzioa dute EAEn bizi diren emakume ijitoek emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan?	Eztabaida-taldeak (ET) eta Elkarrizketak (E) EAEko emakume ijitoekin. Belaunaldi-ardatza: - 1Talde-elkarrizketa 50 urtetik gorako emakume erreferenteekin (izebak, <i>Las Tías</i>). - 1ET 25 urtetik beherako emakumeekin. Lurralde-ardatza: - 3ET EAEko hiru probintzietako emakume ijitoekin (1ET lurraldeko), 18 eta 50 urte bitartekoak.	4ET eta hirunakako elkarrizketa bat (EAEko lurralde historikoetan barreiatuta)
		Elkarrizketa erdi-egituratuak (E) EAEko funtsezko zerbitzuetako erabiltzaile diren emakume ijitoekin.	6 (EAEko lurralde historikoetan barreiatuta)
		Elkarrizketa erdi-egituratuak (E) genero-indarkeriaren biktimak diren edo izan diren emakumeen eta EAEko funtsezko zerbitzuen artean bitartekari diharduten elkarteetako ordezkariekin.	3 (1 lurralde historiko bakoitzean)
	2. galdera: Zer-nolako pertzepzioa dute erabiltzaile diren emakume ijitoek EAEn genero-indarkeriaren biktimak diren edo izan diren emakumei laguntzeko funtsezko zerbitzuen inguruan?	Elkarrizketa erdi-egituratuak (E) EAEko funtsezko zerbitzuetako erabiltzaile diren emakume ijitoekin.	6 (EAEko lurralde historikoetan barreiatuta)
		Elkarrizketa erdi-egituratuak (E) genero-indarkeriaren biktimak diren edo izan diren emakumeen eta EAEko funtsezko zerbitzuen artean bitartekari diharduten elkarteetako ordezkariekin.	3 (1 lurralde historiko bakoitzean)
2.FASEA		Kontrastea EAEko funtsezko zerbitzuetako teknikari kargudunekin.	Kontrastea (15)

Jarraian, labur azalduko ditugu erabilitako teknika bakoitzaren erabilera eta funtzioak:

- **Hasierako edo esploratze-elkarrizketak (EE) gako diren informatzaileekin:** Emakume ijitoek ibilbide jakin bat egiten dute beren komunitatean, funtsezko zerbitzuen eta elkarte bitartekarien laguntza eskatu aurretik, eta horrek markatu egiten ditu beren prozesua eta inguruabarrak. Beraz, ezinbestekoa da ibilbide hori ezagutzea eta ibilbide horrek barne hartzen dituen tradizioak, kultura-kodeak, loturak eta ondorioak zeintzuk diren jakitea, emakume ijitoen berezitasuna ulertu eta testuinguruan kokatu ahal izateko eta BFAZen aldetik arreta

eta esku-hartze egokia bermatu ahal izateko. Ijito-komunitatearen barruan zein kanpoan giltzarri diren informatzaileei egindako esploratze-elkarriketen funtzioa da desberdintasun hori ezagutzea/aitortzea eta diseinu metodologikoa horretara egokitzea.

· **Elkarriketa erdi-egituratuak (E):** Elkarriketa ireki edo egituratu gabekoetan, galderen eskema eta sekuentzia ez dago zehaztuta, eta galderak irekiak izan daitezke. Mota horretako elkarriketak malguagoak dira eta aukera handiagoa ematen du ikerketaren beharretara eta subjektuen ezaugarrietara hobeto egokitzeko.

o *Elkarriketa erdi-egituratuak genero-indarkeriaren biktima diren edo izan diren emakumeen eta EAEko funtsezko zerbitzuen artean bitartekari diharduten elkarteetako ordezkariekin:* Guztira, 3 elkarriketa erdi-egituratu egin dira genero-indarkeriaren biktima diren edo izan diren emakumeen eta EAEko funtsezko zerbitzuen artean bitartekari diharduten elkarteetako ordezkariekin. Horien helburua izan da emakumeen eta sare instituzionalaren artean bitartekari gisa diharduten elkarten esperientzia, ikuspegia eta balorazioa jasotzea. Horien bidez, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoen ezaugarrien ikuspegi zabalagoa izan dezakegu, baita ikusitako oztopo nagusien eta BFAZen arreta eta esku-hartzea hobetzeko proposamenen inguruan ere.

o *Elkarriketa erdi-egituratuak genero-indarkeriaren biktima diren edo izan diren emakume ijitoekin, EAEko funtsezko zerbitzueta erabiltzaile direnekin:* Emakumeen ahotsak eta arreta emateko zein esku hartze-ko funtsezko zerbitzuei lotuta izan dituzten esperientzia eta ibilbideak elkarriketa erdi-egituratuen bidez jasotzen dira, indarkeriaren biktima izan diren emakumei arreta emateko funtsezko zerbitzuek bete behar dituzten printzipio eta ezaugarrien abstrakzioan oinarrituta (diagnostiko horretarako *ad hoc* egina).

· **Eztabaida-taldeak:** Eztabaida-taldearen teknikak talde-esperientziak jorratzeko balio du, eta hainbat helburu eta funtzionamendu izan ditzake. Diseinu honetan eman zaion erabilera eta funtzioa tradizio anglo-saxoiaren barruan txertatuta dago, hau da, denbora tarte mugatu batean biltzen diren subjektu talde batek diskurtso kontrolatua sortzea du helburu, ikertzaileak proposatutako gai jakin bati buruz eztabaidatzeko. Ikertzaile-moderatzailearen zeregina, beraz, ikuspegi konduktista-kognitiboan oinarritu da, taldearen erantzunak lortzeko alde aurretik finkatutako estimulu-galderak eginez.

Guztira, 4 eztabaida-talde (ET) egin dira, eta hirunakako edo taldekako elkarriketa bat, emakume ijitoek genero-indarkeriari buruz duten pertzepzioa aztertzeko, bi ardatz nagusitan banatuta:

o *Belaunaldi-ardatza:* Eztabaida-talde bat 25 urtetik beherako emakumeekin, adineko emakumeekin (izebak, *Las Tías*) egindako talde-elkarriketarekin kontrastatzeko.

- o *Lurralde-ardatza*: Eztabaida-talde bat EAEko lurralde historiko bakoitzean (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa), 25 eta 60 urte bitarteko emakumeekin.
- **Kontrastea**: Lehen fasean lortutako informazioa sistematizatu ondoren, gal-detegi bat egin zitzaien indarkeriaren biktima diren eta izan diren emakume ijitoengana iristeko eta haiekin esku hartzeko bide nagusi gisa identifikatu diren BFAZetako profesionalai. Kontrastearen helburua da emakumeei arreta eta laguntza ematen dieten teknikarien pertzepzioa eta esperientzia gehitzea gainerako parte-hartzaileek identifikatutako oztopoei eta hobetzeko alderdiei eta NBE Programak identifikatutako funtsezko ezaugarriei dagokienez.

Jarraian ageri den koadroan, teknika bakoitzeko parte-hartzaile kopura eta parte-hartzaile kopuru osoa ageri dira.

3. koadroa: Tekniken laburpena eta parte-hartzaile kopurua.

TEKNIKA	Unitateak	Parte-hartzaileak, guztira
Eztabaida-taldeak + Hirunakako elkarriketa	4+1	40
Elkarriketak	12	12
Kontrastea	15	15
GUZTIRA	32	67

3.3. Diagnostikoaren irismena

Ikerketa bat ikuspegi feministan oinarrituta egiteko orduan, gure gain hartzen dugun erantzukizunaren parte da diagnostikoaren irismena eta mugak nabarmentzea. Gure lanen partzialtasuna ikusarazteko aukera ematen digu (behintzat kontziente garen alderdiak) eta, horrela, emaitzen irakurketa doiagoa egiteko aukera.

- *Irismena denborari eta lurraldeari dagokienez*: Ezein ikerketak ezin ditu errealitatearen dimentsio eta maila guztiak barne hartu, baizik eta modu subjektiboan berri eman errealitate sozial bati buruz, espazio-denbora mugatu batean. Landa-lana 2021eko ekainetik abendura bitartean egin da, EAEko hiru lurraldeetan. Aipatzekoa da EAEko hiru hiriburuek garrantzia berezia hartu dutela emakumezko parte-hartzaileak elkartzerakoan, gehienak hirian bertan edo inguruetan bizi baitira. Era berean, kontraste-fasea hiriburueta udal-zerbitzuetan kontzentratu da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Foru Zerbitzuari eta Ertzaintzari dagokienez izan ezik.

- *Irismena diskurtso kopuruari dagokionez:* Badakigu orokortzeak arriskutsuak direla talde sozial bati buruzko narratiba, jarraibide edo baieztapenak ezartzeko. Horregatik, EAEko ikerketan gai zehatz batzuen gainean azaleratu diren ikuspegi desberdinak sartu nahi izan ditugu. Baliteke, ordea, ijito-herriaren multzo heterogeneoa osatzen duten zenbait diskurtso eta errealitate kanpoan utzi izana. Beren errealitatearen zati bat islatuta geratzen bada ere, ez dute ikerketan parte hartu, neurri handi batean, egoera sozioedukatibo eta ekonomikoagatik muturreko gizarte-bazterkeria egoeran bizi diren emakumeek. Emakume ijito migratzaileek ere ez dute parte hartu, Errumaniatik datozen emakume ijitoek, adibidez.

Detektatzeko eta harremanetan jartzeko modurik ohikoena «elur-bola» izenekoak izan da, eta ijitoen elkarte eta erakundeek funtsezko zeregina izan dute profilak identifikatzeko eta lanaren ezaugarriei eta helburuei buruz konfiantzazko lotura bat sortzeko orduan.

- *Erakunde-irismena:* Kontzeptu-esparruan azaldu dugun bezala, lehentasuna eman zaie genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoei sarbidea emateko bide nagusi diren zerbitzuei, eta kanpoan utzi dira oso gutxitan edo salbuespenetan erabiltzen diren zerbitzuak, baita gobernantzaz arduratzen diren erakunde eta organismoak ere. Azkenik, NBE Programan ezarritakoaren arabera, BFAZek bete behar dituzten funtsezko printzipio eta ezaugarriekin egindako abstrakzio-ariketa aipatu behar da. Horietatik, azterlanaren xede den gizarte-taldearekin harreman berezia dutenak hautatu dira.

3.4 Kodifikazioa

Diagnostikoan parte hartu duten pertsonen ahotsa bere horretan helarazteak duen garrantziaz jabetuta, horiek hitzez hitz sartu dira dokumentuan. Horien anonimotasuna ziurtatzeko, kodifikazio-siglak jarri ditugu aipu horiekin batera. Horrela, txostena irakurtzen duen pertsonak erraz identifikatu ahalko du, lehenik eta behin, zein teknika-ren bidez jaso den testigantza bakoitza; eta bigarrenik, zer ezaugarri profesional eta pertsonal dituen informazioa ematen digun pertsonak. Azkenik, beharrezkoa izanez gero, hirugarrenik jasota dago parte-hartzailea kokatzen den ardatza (lurraldeari edo belaunaldiari dagokiona).

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kasuan, nahita erabaki da jatorria ez identifikatzea. Parte-hartzaileen anonimotasuna ziurtatzeko neurria da.

Jarraian ageri den taulan jasota daude profil bakoitzari esleitutako kodeak, aurrez azaldu diren irizpideen arabera. Kodifikazio-siglen azken emaitza kode horietako bakoitzaren batura izango da; horrela lortuko da profil osoa.

3. koadroa: Kodifikazioa.

I. Erabili den teknikaren arabera kodifikazioa.	
EE	Esploratze elkarriketa
E	Elkarriketa erdi-egituratua
E3	Hirunakako elkarriketa
ET	Eztabaida-taldea
K	Kontrastea funtsezko zerbitzuekin
II. Ezaugarri pertsonal eta profesionalen arabera kodifikazioa.	
O	Ijitoen elkarteko ordezkaria
B	Bideratzailea
IB	Genero-indarkeriaren biktimak
III. Lurralde-ardatzaren arabera kodifikazioa.	
A	Araba
B	Bizkaia
G	Gipuzkoa
IV. Belaunaldi-ardatzaren arabera kodifikazioa ¹⁶	
EN	50 urtetik gorako emakumeak (izenak, <i>Las Tías</i>)
EG	25 urtetik beherako emakume gazteak

1. adibidea: «Jende askok txarto tratatzen ditu emakumeak eta gero maite dituela esaten du, hori ez dut ulertzen» ETB.

ETB: Eztabaida-taldea, Bizkaia

2. adibidea: «Familiaren barruan konpontzen bada, eta horrek ondo funtzionatzen badu, zertarako egingo dute salaketa, eta familia aurrez aurre jarri? Ijitoen justizia ezartzen bada, oso ona da» EOA.

EOA: Elkarriketa erdi-egituratua ijitoen elkarteko ordezkariarekin, Araba.

Kapitulu honetan analisiaren emaitzak aurkezten dira, diagnostikoak ardatz dituen bi gai nagusiak oinarri hartuta. Lehenik eta behin, EAEn bizi diren emakume ijitoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten pertzepzioari buruzko atal bat jasota dago. Bertan, EAEko emakume ijitoek genero-indarkeriaren, haren adierazpenen, genero-rolen eraikuntzarekiko duen loturaren eta haren aurrean dauden jarreraren inguruan

¹⁶ Belaunaldi-ardatza emakume gazteen eztabaida-taldeari eta hirunakako elkarriketei soilik ezartzen zale.

04

Emaizten azterketa

duten pertzepzioari lortutako emaitzak aletzen dira. Atal honetan, beharrezkotzat jo dugu ijito-komunitatearen barruan genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eskaintzen zaien arretari eta babesari buruzko epigrafe bat sartzea. Bigarren atalean, erabiltzaile diren emakume ijitoek EAEko indarkeriaren biktima diren eta izan diren emakumeei arreta emateko funtsezko zerbitzuei buruz duten pertzepzioari dagokionez erregistratutako iritziak jasotzen dira. Bertan ikuspegi bikoitza sartzen da: indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoena, eta arreta emateaz arduratzen diren BFAZetako langileena.

4.1 EAE-n bizi diren emakume ijitoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz duten pertzepzioa

Emakume ijitoek genero-indarkeriari buruz duten pertzepzioa bat dator gizarte maioritarioak duen ikuspegi murriztailearekin, hartatik elikatzen baita. Gehienek argi eta garbi identifikatzen dituzte eraso fisikoak eta hitzezko mehatxu larriak (iraintzea, umiliatzea, biraoak), eta onartezintzat jotzen dituzte; eta handiagoa da, ordea, indarkeriaren biktima izan den emakumearen kontrolarekin eta menperatzearekin lotutako bestelako adierazpenen onarpen-maila.

Aipatu behar da eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakume ijitoek aipatzen duten pertzepzio indibiduala ez datorrela bat komunitate osoaren iritziari eta pertzepzioari buruz galdetzen zaienean duten iritziarekin. Horrela, parte-hartzaileei aldera hau egin

zaienean: «Ijito-komunitatearen barruan, zure ustez, genero-indarkeriaren zein definizio dago hedatuen?», erantzunak ez dira ia aldatu ardatzen artean (probintzia, adina), ezta adierazpen sortan ere. **Indarkeria fisikoa** (jipoiak, kolpeak), biraoak edo desleialtasun-arazoak dira identifikazio-maila handiena duten adierazpenak, eta, tratatu txarrak pairatzen dituen emakumeak banantzera erabakiz gero, babes komunitario handiagoa.

«Biraoak, iraintzea eta jotzea» ETG

«(aho batez) jotzea» ETEG

«Nik uste dut tratatu txar fisikoa bakarrik identifikatzen dutela (...); etortzen badira, indarkeria fisikoagatik etortzen dira, eta gero dena kontatzen dizute. Orduan, zuk esaten diezu beste batzuk ere badituela, eta horiek ere salagarriak dira» EOB

Hala ere, «Zer da zuentzat genero-indarkeria?» galderaren aurrean, emakumeek **indarkeria psikologikoa** (umiliazioak, gutxiespenak) eta, neurri txikiagoan, kontrol soziala (janzkera, sakelako bidezko elkarrizketak, joan-etorriak) barne hartzen dituzten erantzunak ematen dituzte:

«Ez baloratzea» «Emakume gisa deuseztatzea» «Sufriaraztea»

«Hitzek min handiagoa ematen dute batzuetan» «Badira jeloskortasuna tratatu txartzat hartzen duten pertsonak; aber, gehiegizkoa bada, bai» ETB

«Ez errespetatzea, emakume gaiztoa sentiaraztea, janzkera kritikatzeta, irteten ez uztea... ETA

«Egun osoa eztabaidatzen aritzea, *mingostuta* egotea» ETEG

«Berak nahi duen bezalakoa izan behar izatea, mehatxuak, ni kritikatzeta... Eta erasoak» IB3

Biraoak, irain larriak. Indarkeria gisa identifikatu dute elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakume ijito gehienek. Pertsonen lotuta, zendu diren senideei lotuta birao egiten bada, irain hori ez dago soilik erasotuari zuzenduta, familia osoari ere zabaltzen zaio. Horrelako erasoak biktima den emakumearenganako bortxa modu gisa erabil ditzake tratatu txarrak ematen dituenak; aurrerago sakonduko dugu inplikazio horietan.

«Nik ez dut amarik. Zeruan dagoen hari birao egiten badio eta anaiak entzuten badu... zazpi anaia ditut nik... haiek entzuten badiote, ulertuko duzunez, ez diote

‘Kaixo, zer moduz?’ esango. Orduan, *galbidea*¹⁷ saihesteko, bazekien atea ireki-ko niola». IB2

«Pisuz aldatu nindutenean, okerrago izan zen, nire ahizparengandik gertu nengoelako... Nolako biraoak... Nahiago dut joka hastea...» IB4

Sexu-indarkeriaren kasua bereziki delikatua da. Eztabaida-taldeetan indarkeria mota horren inguruan egin diren aipamen gehienak ijito-herrian horrelakorik ez dagoela adierazteko izan da, edo modu partzialean aipatzeko. «Nik ez dut uste emakume ijitoekiko sexu-indarkeriarik dagoenik...» EOB «... ijito-herrian gizonak ez dute bortxatzen» ETEG. Egiazki, horrelako portaera batek ondorio larriak ekarriko litzake erasotzaileari ijito-komunitatearen aldetik, «mutil batek neska bati gehiegikeriak egiten badizkio galbidea eragingo du; berak zein familiak hemendik alde egin beharko dute» ETEG. Hala ere, elkarriketetan parte hartu duten emakume biktimetako bik gutxienez identifikatu dute bikotearen barruko sexu-indarkeria.

Adingabeek komunitatean jasotzen duten babesaren eta tratua onorioz, **indarkeria bikarioko kasuak** ia ez dira existitzen, ez behintzat gizarte maioritarioan gertatzen diren neurri eta forma berean. Agian, erakundeek babesik gabe uzten dituzte adingabeak, baldin eta tratu txarrak ematen dituen gizon batekin bizi daitezten uzten badute, eta horrek, tratu txarrak emateaz gain, beste arazo batzuk ere baldin baditu, eta, ondorioz, haurrak larriki deskuidatzen edo kaltetzen baditu.

«Nire alabak eta ni babesik gabe geratu gara, berak eta bere familiak ez dutelako ulertzen edo ez dutelako ulertu nahi (*bikotekideak, alaben aita denak, adikzio-arazo bat du, eta ijitoen legea urratu nahi dute*), (...) txosten psikosoziala daukat, baita bisitetan egin diguten txostena ere... Baina, hala ere, esaten dute (*zerbitzu judizialek*) neskek aitarekin egon behar dutela beren onerako» IB5.

Bikote barruko **indarkeria ekonomikoa** onartzen da soilik emakumea bere burua eta seme-alabak mantentzeko baliabide nahikorik gabe geratu denean. Gai hori gutxienez bi faktore garrantzitsurekin lotzen da. Lehenik, gehien identifikatzen den indarkeria ekonomikoa ijito-komunitatearen aurka egiten dena da, enplegua lortzeari, ekoizpen-faktoreei eta ondasun materialei dagokienez pairatzen duten diskriminazio espezifikoaren bidez. Bigarrenik, etxeko ekonomia administratzeko moduari lotuta dago, eta hori dago familia-unitatearen kulturari dagokionez zabalduen.

«Ijito-familiak horrela funtzionatzen du, gizonak soldata ekartzen badu, familiarekin banatzen du. Emakumea arduratzen da administratzeaz» «Emakumeak dirua eramaten du etxera» ETB

¹⁷ *Galbidea* edo kimera ondorio larriak dituen gatazka da ijito-komunitatearen barruan. Tratu txarren biktima izan den emakume ijito bati egindako elkarriketaren laburpenean, tratu txarren emaileak nahita egiten dizkion biraoak senideek entzun ez ditzaten saiatzen da emakumea. Emakumeak, familien arteko gatazka kosta ahala kosta saihestu nahian, obeditu egiten dio azkenean.

«Zuk lan egiten duzu, eta senarrak ere bai, ezta? Zure soldata zeurea da, eta zure senarrarena berea, ezta? Nire etxean ez, soldata bakarra dago denentzat eta akabo, zuk lan egin edo nik lan egin» ETEG

Bestalde, hurrengo atalean garatuko dugunez, bere komunitatean genero-indarkeria salatzen duen eta biktimatzat hartzen den emakume ijitoak familiaren babesa eta babes komunitarioa lortuko ditu «...familia dutenak ez dira babesik gabe geratzen» EOG «Ez zaie sabairik faltako, ez zaie jatekorik faltako, gurasoek duten neurrian...» EOB Hala ere, ijito-herrian pobrezia-tasa eta gizarte-bazterkeria oso altuak dira, gorago ohartarazi dugunez. Kasu horietan, harrera egiteko ahalegin ekonomiko handia egin behar izaten dute familiek. Familiaren eta komunitatearen babesa galtzen bada, emakumeen kaltebertasuna agerian geratzen da. Horregatik egin dira eskaera espezifikoak BFAZen aurrean.

«Etxebizitza izaten da beti. Alde egiteko. Izan ere, ez dute etxebizitzarik, ez baliabiderik, ez dirurik (...) *Tartekari sarearen* amaiera ona izango litzateke hori, programa horretan ez baita salaketarik jarri behar eta haiek babes bila joan baitaitezke. Eta gero lan bat eskuratzeko aukera izatea, independente izateko zerbait, emakume horien kasuan gizonak kontrolatzen du dirua...». EOB

Emakume ijitoek gizarte maioritarioko instituzioekiko tratuan antzematen dute **indarkeria sinbolikoa**. María Sierra Alonso historialariaren hitzetan (2017) «komunitate oso bati estereotipo jakin batzuk esleitzea indarkeria sinbolikoko ekintza bat da estigma gainditzeko saiatzeko direnentzat»¹⁸. Antijitotasunaren aurkako Aliantzaren definizioari berriro helduz (2021), gizataldeei ezaugarri espezifikoak esleitzea diskriminazio mota bat da. Gaur egun, kontraesana dago emakume ijitoek errebelde eta sorgin gisa zuten irudi historikoaren (emakume autonomoak eta baliabideak dituztenak) eta erakundeetatik jasotzen duten tratua artean, menpeko gisa irudikatzen baitituzte, edo, Caro Mayaren hitzetan, «ezgaitu sozial» gisa¹⁹:

«Ijito ez diren batzuek zera esaten dute esku-hartze ekintzetan: Bihar indabak jan behar dituzu, etzi garbantzuk, haurrari ezin diozu litxarreriarik eman... Baina zu hezita zaude, eta goizez, jaiki ondoren, bazkaltzeko zer egin hasten zara pentsatzen...». ETG

«Nire aurrean, eskolan, nagusitasun moral harrigarritz hitz egin diote bi amari, neskatok balira bezala...». EOB

Genero-rolak «indarkeria» gisa ulertzeko modu esentzialista batekin lotutako adierazpenak identifikatzea zailagoa da. Esate baterako, zainketa-lanaren banaketa edo espazio

¹⁸ Sierra Alonso, María (2017/04/11) «*Cuando la violencia contra los gitanos se disfraza de ciencia*», Ctxt. Contexto y acción.

¹⁹ AMUGE elkartearen jasotako prestakuntza baten esparruan.

publikoaren okupazioa²⁰. Zainketei dagokienez, garrantzitsua da ohartaraztea ijitoen kulturak garrantzi handia ematen diola familiaren zaintzari, eta balioa ematen diela familia zaintzen dutenei.

²¹Hori alde batera utzita, genero-rolen naturalizazioak ordena bat eraikitzen eta ezartzen du. Ordena horretan, emakumeek hainbat mandatu bete behar dituzte, eta horrek taldearen errespetua ekarriko diete emakume gisa. «Errespetua, hori da lehenengo gauza, etxea, seme-alabak maitatzea, haiek zaintzea, etxea zaintzea, familia zaintzea, seme-alabak hezte» «Etxeko emakumea izatea» (ETB). Gizarte maioritarioan eraiki diren genero-rol tradizionalen traslazio gisa aztertu behar da kontu hori, heziketa diferentzialean sustraituta baitago.

«Ezkontzen zarenean, heziketa ematen dizute. Eta esaten dizute gizonak hau, hori eta bestea egin behar duela: etxea mantendu, seme-alabak eta emaztea zaindu. Eta emakumeok zer egin behar dugun ere bai: seme-alabak hazi, etxean egon, lasai, senarrekin... Eta ez dago besterik!» «Hori da, zuk desberdintasun gisa ikusten duzu, baina nik ez dut horrela ikusten» ETA

«Nahi izan arren, ez diot utziko (*mahaia jasotzen*); ni egonda, zertarako?» «Ezin duzu imajinatu, ez zaizu ateratzen esatea: *ea, orain zuk egingo duzu...*». «Zuk zure amonarengan ikusten duzu, amarengan... Eta amak esango dizu zeuk egin behar duzula», «badakigu ez jasotzea eta abar pixka bat matxista dela, baina ez zaigu bidegabea iruditzen» ETEG

Boterea eta kontrol soziala funtsezko kontzeptuak dira eta elkarri lotuta daude genero-indarkeriari buruzko analisi feministetan. Oro har, ikusi ahal izan da emakume ijitoek gizonezko ijitoek baino errazago identifikatzen dituztela askatasuna murrizten dieten moduak, hau da, pairatzen duten kontrol soziala, eremu publikoetan duten boteretik eza baino (ekonomikoa barne). Adibidez, emakume gazteek argi ikusten dute aldeak daudela etxera iristeko orduetan eta arau-hausteak izango lituzkeen ondorioetan. Emakume helduenek uste dute jeloskortasuna dela (kasu batzuetan «gaixotasuntzat» jota) kontrol-elementurik muturrekoena eta kaltegarriena dela: «Jeloskortasuna indarkeria mota bat da». «Hori gaixotasun bat baino okerragoa da». «Jo zaitzake, edo giltzapetu, edozer gauza esaten dizu, edo ez dizu irteten uzten...». ETG. «Neskak eta mutilak ezberdin hezten dituzte; mutikoek erraztasun handiagoa dute, eta neskek babes handiagoa» ETEG. Haren aldarrikapena ez da boterearen ingurukoa²² –arrazializatuta ez dauden emakumeen diskurtsoan ez bezala–, gehiegizko kontrolaren ingurukoa baizik.

²⁰ Funtsezkoa da «espazio publikoari» ijitoen ikuspegitik begiratzea. Hasieran ohartarazi dugunez, gizonezko ijitoek ez dute botere ekonomikoko edo politikoko posturik betetzen gizarte maioritarioan, egiturazko arrazakeriaren ondorioz. Hausnarketa eta definizio landuagorik ezean, boteregune publikotzat joko ditugu kultura, taberna edo lokal mota jakin batzuetarako sarbidea, kaleetan ordu jakin batzuetan modu seguruan igarotzeko aukera, edo erabakiak hartzeko tarteak postuetan eta azoka txikietan.

²¹ Menpekotasuna duen pertsona heldua eta gizonezkoa bada, gizonek zaindu beharko dute. Emakumeen kasuan, genero bereko senideak arduratzen dira haiei arreta emateaz.

²² Lan-mundurako edo, besteak beste, hezkuntza-erakundeetarako sarbidean antiijitotasuna egoteak antzera eragiten die emakume eta gizon ijitoi. Gizonezko ijitoek lan-mundurako sarbidean edo garapen profesionalean pribilegiarik ez badute, zergatik nahi lukete emakume ijitoek existitzen ez den zerbait eztabaidatu? Silvia Agüeroren hitzetan (2021/12/15), «patriarkatu antiijitoari» aurre egitean oinarritzen dira aldarrikapen eta protestak.

Horrek ez du esan nahi taldeak eskaintzen dizkien babes-estrategiak antzematen ez direnik. Izan ere, gehienetan lotura estua dute haiekin. Genero eta etnia jakin batekoak direnez, emakume ijitoek emakume izateagatik defendatu behar dute, baina baita gizarte maioritarioan den antiijitotasunaren aurrean ere, diskriminatu eta baztertu egiten baititu. Horrela, kontrol –eta autokontrol– modu horiek justifikatuta daude «*besteari*» dagokionez, hau da, komunitatearen kanpotik heltzen diren ekintzen aurrean babesteko beharrari dagokionez.

«Telebistan ikusten duzu gaueko hamabietan neska bat bortxatu egin dutela, eta nik ez dut nahi hori alabari gertatzerik». «Nahiz eta niri parrandan ateratzen uzten didaten, niri ez zait parrandan ateratzea bururatzen. Nik neuk diot, ezetz, ez dudala neure burua hor ikusten» ETEG.

Orain arte, emakume ijitoek genero-indarkeriaren adierazpen desberdinei buruz duten pertzepzio orokorrari dagokionez lortutako emaitza nagusiak azaldu ditugu. Jarraian jorratuko dira ijito-komunitateak genero-indarkeriaren aurrean sortu dituen konponbide- eta babes-mekanismoak, EAEn garatzen diren moduan.

4.1.1 Genero-indarkeriaren biktima diren eta izan diren emakume ijitoentzako arreta ijito-komunitatearen barruan

Epigrafe honen xedea da genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen esperientziaren bereizgarri diren elementuetako batzuk azaltzea, beren komunitatean jasotzen duten babesari eta laguntzari dagokienez. Hala ere, gogoratu behar da kasu bakoitza bakarra dela eta halakotzat hartu behar dela. Familiaren eta erakundeen aldetik jasotzen duten babesak, familia-kargak izateak, adinak edo bizi-esperientziak, egoera sozioekonomikoak eta gizarte- eta hezkuntza-kapitalak, besteak beste, baldintzatuko dituzte emakume horietako bakoitzaren pertzepzioak eta erabakiak, baita BFAZekin duten esperientzia ere.

Kasu bakoitzaren inguruabar espezifiketatik haratago, EAEko emakume ijito kopuru esanguratsu batentzat komunitatea bera da gatazka konpontzeko lehen aukera. Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzu espezifikotara (BFAZ) jotzen duten gehienek aurretik esploratua izan dute justizia-mekanismo hori, beren legetan eta ondare kulturean oinarritutakoa. Hori da, hain zuzen ere, emakume ijitoen genero-indarkeriako kasu asko erakunde-mailan ez artatzeko arrazoi nagusietako bat²³. Azkenean artatzen dituztenen artetik, askoz ere gutxiagok erabakit-

²³ Ez da salaketarik jartzen zehazki genero-indarkeriagatik. Baliteke emakume horiek beste arrazoi batzuegatik gizarte-zerbitzuekin harremana izatea tratu txarrak gertatzen diren bitartean.

zen dute polizia-salaketa jartzea. Bide hori aukeratzea edo, are gehiago, tratu txarren egoera salatzeke osasun-zentrorra edo gizarte-zerbitzuetara jotzea da EAEn genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijito gehienek hautatuko duten azken aukera: «Beti egon izan da ijitoen kontseilu bat, laguntza eskatzeko senideren bat... (...) ijitoek ez dute salatzen, nik ez dut nire senarra salatuko» ETA. Polizia-kidegoekiko mesfidantza eta arbuioa da arrazoi nagusia, ijito-herriaren erasotzaile eta errepresioegileak izan baitira historikoki (ikusi 2. apartatua).

«Duela mende batzuk, sarekada handia egin zenean eta ijitoen aurkako legeak agertu zirenean... Mingaina eta belarriak mozten zizkiguten kalo hitz egiten bagenuen»

«Eta duela ez hainbeste urte ere bai, Francok. Franco egon zenean, zer egiten zuten ijitoekin? Tamalgarria izan zen... Ohol batzuk jarri behar izaten genituen, polizia iristen zenean ezkutatzeke, bestela Alferren Legea aplikatzen zuten eta...»

«Eta hil egiten zituzten»

«Hori kontatu digute guri. Orduan, poliziaren zer ikuspegi izango dut, ba?» (E3MM)

Talde zapaldu gisa historikoki eraiki izanak auto-antolamendurako eta babeserako estrategiak formulatzea ekarri du, justizia hegemonikoaren (eta zapaltzailearen) alternatibak eskainita. Horri esker, parte hartzen dutenek taldearen barruan ebatz ditzakete gatazkak. Horregatik, eztabaida-taldeetan galdetu denean tratu txarrak pairatu dituen emakume ijito bat zer inguruabarretan joango litzatekeen instantzia judizialetera edo polizialetera laguntza eskatzera, parte-hartzaileak bat datoz adieraztean muturreko egoera izango litzatekeela, taldearen babes-gaitasuna galdu den kasuetan: «Gure ijitoak eta gure familiak ditugu». «Niri horrelako zerbait gertatuko balitzait, aitarekin hitz egingo nuke, edo aitonarekin». «Horrela hazi gaituzte, eta horrela konpontzen ditugu geure kontuak, poliziarekin hitz egin gabe» ETA.

Aurrerago helduko diogu berriro gai horri, eta aztertuko dugu zer inguruabarretan gal dezaketen genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek beren komunitatearen eta familiaren babesa. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu arreta behar bezala moldatu eta egokitzeke, beharrezkoa dela jakitea zer ezaugarri dituen biktima bakoitzak ibilbide horri dagokionez, BFAZen arreta espezifikoak jaso aurretik. Ezinbestekoa da haien inguruabarrak, oztopoak, salaketa jartzeko erresistentziak eta beharrian espezifikoak ulertzeke.

Emakume ijito bat bikotekidearengandik tratu txarrak antzematen hasten denean, harremana amaitzea nahiz konpontzen saiatzea erabakitzen badu, kontseiluarengana jotzen du familia-bitartekaritza eskatzeko. Normalean, familiari jakinarazi aurretik, emakumeak denbora luzez jasotzen ditu irainak.

«Emakume ijito bat indarkeriaren biktima denean, lehenik eta behin, nekatzen diren arte denbora luzea irauteaz gain, familiako kideren bati kontatzen diote txarto daudela, banandu nahi dutela. Ohikoena da hori esan aurretik beste gauza batzuk esatea, lotsatu egiten direlako, eta kosta egiten zaielako... Eta egia kontatzen dutenean, ijitoen mekanismoa hasten da» EE2

Emakume ijito bat tratu txarren egoeran denbora gehiago irautera bultzatzen duten arrazoiak egiturazko jatorria dute, eta, oro har, honako hauekin dute zerikusia:

- Familia-unitatearen balioa eta hura haustea dakarren kostu sinbolikoa.
- Biktimaren etorkizunaren inguruko babesgabetasuna eta ziurgabetasuna, zeinak familia-unitatearen barruan modu seguruan moldatzen ikasi baitu eta, beraz, menpekotasun-harreman handia garatu baitu.
- Neskaren familiaren eta senarraren familiaren arteko gatazka (*galbidea*) eragiteko beldurra edo kezka.
- Bere burua eta haurrak mantentzeko etxebizitzarik edo baliabide ekonomikorik ez izatea.
- Senarraren familiaren presioak.
- Erakundeetara joz gero haurrak galtzeko beldurra.

Hori da elkarrizketatutako emakumeen kasua; emakume horiek urte luzez irain fisiko eta psikologikoak pairatu ondoren erabaki dute beren bikotekideak abandonatzea. Egoera hori senideei jakinaraztea eta haien laguntza bilatzea erabakitzen duten unea tarte horretan gertatzen da: «Familiaren babesa funtsezkoa da, prozesuan zehar eta ondoren. Beren egoera "konpondu" nahi dutenek ez dute salatzen, ijitoen legearen arabera egiten dute. Gurasoek ez dute tratu txarrik onartu» EOA. Familiak bideratzaileengana joko dute, eta bikotearen arteko bitartekari gisa jardungo dute, biktimaren borondatea errespetatuz; bi alderdiei entzungo diete eta akordio edo «epai» bat ezartzeko moduari buruz eztabaidatuko dute, gatazka areagotu ez dadin. «Ijitoen legearen espiritua gauzak modurik onenean konpontzean datza (...) horrekin lortzen dugu gatazka ahalik eta txikiena izatea, ahalik eta larritasun txikienekoa» EEB.

Jarduteko modu horrek oso aitortza eta onespén handia du EAEko ijito-komunitatearen espektro garrantzitsu baten aldetik, baita belaunaldi gazteenen aldetik ere.

«Nik uste dut zaila dela ijitoen artean horrelako egoera batean salaketa jartzea. Nagusiekin hitz egingo litzateke, eta hori guztia. Nik zera esango nieke: "Aitona, amona, bilobarekin hau eta beste gertatzen da..."». ETEG

«Telefono bidez izan da, lotsa eman die elkartera etortzeak. Esaten didate "arazo bat dut kidearekin, x lekura etor zintezke?". Joan egin naiz, normalean emakume

batekin, eta orientazioa eman zaie (...) Beraiekin hitz egiteko eskatzen digute, normalean jende gaztea izaten da... Bere hezitzailea izan zarenez, edo anaiarena... Bada, konfiantza dute» EOG

Ijitoen legea ahoz transmititzen da: «Nola funtzionatzen duen denok dakigu, ijitoen legea ez baita batentzat soilik, guztiontzat da berdina (...) Amak niri erakutsi dit, eta nik seme-alabei erakutsiko diet» (E3MM), eta komunitateak errespetatzen dituen adinekoak arduratzen dira justizia egiteaz. «Gazteek ijito nagusiak errespetatzen dituzte, haiek esaten dutena bete egiten da» (E3MM).

Tratu txarrak frogatu egiten badira eta emakumeak banandu nahi badu, ijitoen legean jasota dago etxea, haurrak, errenta edo jasotzen den laguntza emakumearen eskutara pasako direla. Erasotzaileak, orduan, onartu egin behar du erabakia, eta handik urrundu behar du: «Baten familia autobus-geltokiaren beheko aldean bizi bada, eta bestearen familia goikoan, orduan, zera egiten da: ez igo. Beti saiatzen gara erabakirik egokiena bilatzen, kalte gutxien egiten duena» (EEB). Emakume ijitoek genero-indarkeria gisa identifikatzen dituzten adierazpenen sorta zabalagoa bada ere (gizarte-kontrollean edo tratu txar psikologikoan oinarritutako indarkeria psikologikoa), adierazpen horiek ez dute pisu nahikorik hartzen komunitatearen aurrean, ez behintzat komunitate osoaren aurrean bikotea banatzea justifikatzeko bezainbeste edo biktimak nahi duen moduan ebazteko bezainbeste: «Arrazoi serioak izan behar ditu. Adulterioa (...) Fisiokoki, jotzea... Agerikoak diren gauzak» E3MM. Gai horietan bitartekari izateko ardura duen agintariari (Bideratzailea) egindako elkarrizketan, adierazi du aitortzen diren indarkeria-adierazpenen mailak gora egin duela azken urteotan: «Horrekin (*indarkeria psikologikoa*) berdintsu jokatzeko da, bai baitago tratu txarrak ematen dituen jendea, eta eskua gainean jarri ez dizuna, baina txikitu egiten zaituena. Kanean ikusten dituzu, eta ez dira pertsonak... Horrelakoetan gurasoei kontatzen zaie, eta haiek esku hartzen dute» EB. Hala ere, banantze bat emakumearen mesederako izan dadin, oro har, beharrezkoa da indarkeria horrek erraz identifikatzen diren adierazpenekin lotura izatea, hala nola eraso fisikoekin edo biraoekin lotuta egotea, indarkeria psikologikoa baino errazago identifika baitaitezke horrelako adierazpenak.

«Emakumeak familiari ematen dio gertatzen denaren berri; gizona inguru horretatik bota egiten da; haurrak emakumearekin geratzen dira, eta emakumea geratzen da etxean, emakumeak jasoko du aurrerantzean DSBE ere... Betiere frogatu daitekeen indarkeria bada (...). Frogatu ezin badu, hala nola indarkeria psikologikoa edo beste edozein indarkeriaren kasuan, oso zaila da gizona kanporatzea, eta gainerako hori guztia gertatzea, eta emakumeak banatzea lortzea; izan ere, emakumeak erabakia du banatzea, baina, gizona joan dadin, frogatu behar du indarkeria iraunkorra dela, edo eraso egin diola...» EE2

Emakumeak «adiskidetzeko atea zabalik utzi» nahi badu, erasotzailearentzat probaldi bat ezartzen da, eta tarte horretan bere jarrera eten behar du, eta harreman egokiak izateko gai dela frogatu. Emakumeak epe horren ondoren erabakiko du ezkontza-harremanarekin jarraitu nahi duen ala ez. Gatazka emakumearentzat eta familientzat modu egokian konpontzen bada, horrelako kasuak ez dira BFAZetara iritsiko: «Familia-

ren barruan konpontzen bada, eta horrek ondo funtzionatzen badu, zertarako egingo dute salaketa, eta familia aurka jarri? Ijitoen justizia ezartzen bada, oso ona da» EOA.

Hala ere, ijitoen justiziak ere mugak ditu, eta, kasu horietan, litekeena da emakumea zerbitzuren batekin harremanetan jartzea edo polizia-salaketa jartzea erabakitzea.

- Lehenik eta behin, **tradizioa eta ohiturak errespetatzen diren** eremuetan jarduten du ijitoen justiziak: «Familia gehienetan gertatzen da hori; baina beti dago legeak tradizioak errespetatzen ez dituen jendea, familia desegituratuak, kasu. Familia horiekin lehen urratsa eman dezakezu, haiekin hitz egin, baina nekez konpondu ahal izango da» (EEA). Hori gertatzen da komunitate osotik aldentzen dituzten balioak dituzten familien edo pertsonen kasuan, kontsumoekin edo delituekin lotutako arazoak dituztenen pertsonen artean; horiekin zailagoa izaten da ijitoen legeak ezarritako neurriak benetan betetzen direla bermatzea.
- Bigarrenik, «indarkeriaren zirkulua» delakoaren inguruko ulermenik eza. Hau da, biktimak erasotzailearekiko duen menpekotasun-egoera, zeinak erasotzailearen ondora behin eta berriz itzultzea bultzatzen baitu, tratu txarrak gero eta nabarmenagoak eta kaltegarriagoak diren arren. Bideratzaileek aldi kopuru jakin batean esku hartuko dute, baina, puntu batera iritsita, lana amaitutzat ematea erabakiko dute.

«Tratu txarrak ematen dituenarekin itzultzea erabakitzen badu, zer egin dezakegu guk? Egin dezakezun bakarra da esatea, berriro ukituz gero, ondorioak izango direla. Baina emakumea bera da zerbait egin behar duena, berak hartzen du erabakia... (...) Eskuak lotzen dizkigu. (...) Behin banandu bada, eta seme-alabak aitarekin egotea nahi badu, hori errespetagarria da, ezta? (...) Baina une batean aitak (berarenak) zera esan dio: «Zuk ez didazu galbidea bilatuko; zeren bila zabiltza, beste familiarekin elkar hiltzea?» (...) Den bezalakoa da eta, aldatu bada, ondo; baina aldatu ez bada, eta berriro tratu txarrak ematen badizkio, egunen batean familiako norbait etorriko da, eta egin behar ez duena egin dezake bere erruz. Gu hori saihesten saiatzen gara» EEB.

- **Indarkeria psikologikoa** identifikatzeko eta frogatzeko zailtasunak.

Emakume ijitoek beren familietatik jasotzen duten babesaren gorabehera, hainbat egoera daude tratu txarren aurrean kalteberagoak izatea eragin dezaketenak. Gehienetan, gainjarri egiten dira arrazoi bat baino gehiago, edo elkarri lotuta doaz; **(i) biktimaren deslokalizazioa**: ezkontzen direnean familiengandik aldentzen diren emakumeak dira, senarraren familiarekin bizitzera joaten baitira. Erasoa pairatzen ari den emakumeak aita-amaginarrebei egoeraren berri ematea erabakitzen badu, eta aita-amaginarrebek beren laguntza-eskariei jaramonik egiten ez badiete, emakumeak bere familiarengana jo dezake esku har dezan. Hala ere, emakumea babesgabetasun eta kalteberatasun handiagoko egoeran egongo litzateke hurrengo urratsa eman behar duen bitartean; **(ii) familia-autoritaterik ezaren pertzepzioa**: bigarrenik, baliteke haren familiak uste iza-

tea ezin duela behar besteko autoritaterik izan alabaren egoeran esku hartu eta azalpenak eskatzeko orduan. Dela entzungor egingo zaiola interpretatzen duelako, dela familia-loturak daudelako eta, horien ondorioz, konfrontazioa saihesteko borondatea areagotzen delako.

«Niri asko eragiten dit, noski, aita ez dute nire etnian errespetatzen, toxikomanoa delako, eta anaia oso txikia da erreferente izateko... Aitona bakarrik nuen, aitaren aldeko aitona ez delako ijitoa. Orduan zer gertatzen zen, bada, dena elkartzen zitzaidala... haiek (tratu txarren emailearen familiak) beti izaten zuten arrazoia, haiek baitziren ijitoak, antzinatasuna zutenak» IB1

Eta, azkenik (iii) **indarkeriaren zirkuluaren ondorioak**: baliteke emakumeak, tratu txarren emailearekin behin eta berriz itzultzen bada, bere senideen babes eta komunitatearen sinesgarritasuna pixkanaka galtzea, nahiz eta behin eta berriz ohartarazi pairatzen duen indarkeriaz. Horrelakoetan, ijitoek, oro har, indarkeriaren zirkulua behar bezala aitortu eta onartu ez dutenez, emakumea babesik gabe eta muturreko kalteberatasun-egoeran egon daiteke.

«Indarkeriaren zirkulua ez dute ijitoek onartzen; jo egiten bazaitu lagundu egiten dizute, senarrarekin itzultzen bazara, hor konpon. Berriz laguntzen dizute, bigarren aldiz. Ados. Hirugarrenean... Izan ere, nik lagundu egin dizut, eta zuk banandu egin behar duzu eta ez itzuli. Eta hori, maiteminduta dagoen emakume batek (...) urteak behar ditu zenbat tratu txar bizi izan dituen jabetzeko» EOB

«Ulertzen al duzue barkatzen duen emakumea?

- Ez.

- Nik bai, aztertu dudalako. Mentalki txarto daude.

- Txarto daude, baina etxetik alde egin eta pertsona horrengandik aldentzen direnean... Zergatik itzultzen dira?

- Menpekotasun emozionala dutelako.

- Maite dute, agian.

- Beharbada, hainbeste maite dute, non itsutu egiten baitira, eta aldatu egingo dela pentsatzen dute...

- "Aldatu egingo da", behin, bitan, hirutan... Baina ja...» ETEG

«Inori ez zaio tratu txarrak jasotzerik gustatzen; baliteke oraindik senarra gustatzea, berari gehiago kostatzen zaio beste harreman bat izatea, gauza asko daude... (...) Seme-alabak tartean... (...) ijitoen munduan (...) dena da askoz konplikatua» ETB

Azken kasu horretan, eta kalte handiagoa saihesteko, familiak babesak kenduko dio emakumeari, «*familiak ez dio berdin lagunduko: baina beti dago ahizparen bat, lehen-gusinen bat... Norbait*» ETA. Ibilbide horren ondoren, ijito-komunitateak, oro har, uler dezake indarkeriaren biktima den emakumeak polizia-salaketa bat jartzea, gizarte-zerbitzuetara edo ijito-erakunderen batera jotzea.

«...Orduan, tratu txarrek jarraitzen badute, banandu egiten dira. Denbora pasa eta itzuli egiten bada... eta itzultzen denean, zer gertatzen da, tratu txarrak ere itzuli egiten direla. Eta orduan, neskak salatu egin behar du, ijitoen legea ezartzen ez bada, ijito ez direnen legea ezarri behar baita» ETA

«Duela urte asko bideratzaileak egon ziren (*bere kasuan*), baina (*senarra*) ez zen tradizioak gordetze zalea. Eskatzen ziotena betetzen ez zuenez, eta nik barkatu egiten nionez, “ez gara gehiago sartuko” esan zuten. Baina, noski, haiek ez zuten ikusten zer zegoen barkamen horren atzean (...) Nik urteak igaro nituen aguantatzen; urte bat, eta beste bat... eta zera esaten nion neure buruari: “horrela segituko dut hil arte? Hau ezin da izan”. Mespretxuak, tratu txarrak, jipoiak pairatzen nituen... Poliziari deitu nion, eta, Jainkoari eskerrak, harengandik libratu naiz» IB2

Hala eta guztiz ere, oro har funtsezko zerbitzuen eta, bereziki, polizia-zerbitzuen jardunari buruzko mesfidantzaren ondorioz, eta justizia maioritarioaren alternatibak eskaintzen dituzten auto-antolamendurako eta babeserako estrategiak formulatzearen ondorioz, egoera beren kulturak eskaintzen dizkien mekanismo eta prozeduren bidez konpontzen saiatzea erabakitzen dute genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek. Jarduteko modu horren jatorria arestian aipatu dugun «auto-birkriminalizazioaren» trauma da. Emakumeek ez dute beren komunitateko ki-deen kriminalizazio bikoitza sustatu nahi, imajinario sozial hegemonikoak historian eta egunerokotasunean kriminalizatzen baititu. Gure ustez, funtsezkoa da ulertzea emakume ijitoek nondik (zer inguruabarretan) egiten dioten uko salaketa jartzeari eta zere ondorio saihestu nahi dituzten horrelako kasuetan. Ondorio horien artean daude, batez ere, haien zein haien familien kontrako balizko errepresaliak.

«Baina, noski, zuk ezin duzu salaketa halabeharrez jarri... Izan ere, zure familiari min egingo dioten beldur zara, edo beste ondorio batzuk egongo ote diren (...) Salaketa jartzeak eta gizonarentzat ondorio txarrak izateak, ziegara eramateak, adibidez, ondorio kaltegarriak ekar diezazkioke emakumearen familiari ere. Anaia bat izan dezakezu; kalean elkar ikusi, eta baliteke zera esatea elkarri: «Aizu, zergatik salatu du zure ahizpak?» IB1

«Batzuk (*tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeak*) jada ez dira beraiei gertatzen zaienaren beldur. Haien familiari zer gertatuko beldur dira. Gai hori guztia behar bezala landu behar da. Familia jakin batzuekin gai hori landu eta konpondu ahal izan dugu» (EOA)

«Ijito gisa duen balioa galdu egin du, eta hori asko da. Izan ere, zure komunitateak aintzat har zaitzan nahi duzu, baloratu zaitzaten... Horregatik ohorearena, zure gurasoak ohoratzea... Askoz ere handiagoa da familiaren aurkako mina, niretzat hori da sakratuena; seme-alaben, senararren, gurasoen, anai-arreben eta abarren bidez egiten didate minik handiena. Hori da gogorrena (...) Ulertu behar da 600 urtez bizi izan dugun zapalkuntzagatik garela horrelakoak, eta gure kultura sistematik kanpo dagoela sistemak tratatzen gaituen bezala tratatzen gaituelako» EE2

Orain arte azaldu ditugun arrazoiengatik, salaketa jartzea erabakitzen duen emakume ijitoa babesgabetasun-egoeran eta muturreko kalteberatasun egoeran egoten da.

«Nik uste dut emakume ijito horrek ezin duela gehiago, eta beste inork ezin diola lagundu, ez ijito zaharrek, ez aitona-amonek, ez inork. Arazo handia da ja...» «Salaketa azkenaren azkena da... Gurasoek babesten ez bazaituzte...» «Zu bakarrik bazaude...» ETEG

Hurrengo atalean ikusiko dugunez, gutxiengo esanguratsua dira horrelako kasuak, eta BFAZetara beste bide batzuetatik iristen direnak. Hala ere, badirudi nahikoa dela genero-indarkeriak ijito-komunitatean duen eragina eta intentsitatea handia dela ondorioztatzeko.

4.2 Emakume ijitoen pertzepzioa EAE-n genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako funtsezko arreta-zerbitzuei buruz (BFAZ)

Epigrafe honetan, BFAZek bete behar dituzten funtsezko ezaugarrien gaineko pertzepzioari lotutako giltzarri nagusiak azaltzen dira (erabilgarritasuna, moldagarritasuna, egokitasuna, segurtasuna eta komunikazioa)²⁴.

Aipatzekoa da ezaugarri guztiek ez dutela garrantzi bera hartuko zerbitzu bakoitzak betetzen duen eginkizunari dagokionez. Emakume ijitoek gizarte-zerbitzuen

²⁴ Kontraste-elkarriketa grabatzea onartu duten zerbitzu eta profesionalen testu-aipeak baino ez dira sartu. Hori ez da gertatzen polizia-zerbitzuetako profesionalekin, Gasteizko oinarritzko gizarte-zerbitzuekin edo genero-indarkeriaren biktima izateagatik elkarriketatutako seigarren emakumearekin.

inguruan duten pertzepzioari lotuta dauden faktoreak dira azterketa honen giltzarri garrantzitsuenetako bat. Hori dela eta, bolumen handia dute beste esparru batzuekin alderatuta. Bigarrenik, polizia-zerbitzuen rola dago, kasu honetan, EAEko poliziarena (Ertzaintza). Joan den mendeko 80ko hamarkadan eratu zen, baina historikoki komunitatearen errepresioak izan diren beste polizia-kidego batzuen konnotazio bera du ijito-herriarentzat. Azkenik, osasun-zerbitzuak daude; horietatik igarotzen dira indarkeriaren adierazpen ikusgarrien biktima diren emakumeak eta, kasu horietan, ofizioz jarduteko betebeharra dute.

4.2.1 Indarkeriaren biktima izan diren emakumei arreta emateko gizarte zerbitzuak (BAGZ)

Aztertu ditugun funtsezko hiru zerbitzuen artean, genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek arreta maizago eta/edo maila handiagoan jasotzen dute BAGZen aldetik. Era berean, gogorarazi behar da elkarrizketatuak gutxiengoa direla genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen taldean: azterketaren lehen zatian azaldu dugun bezala, kasu gehienak ez dira BFAZetara iristen, baizik eta EAEko ijito-komunitateak berak artatzen eta kudeatzen ditu, beren legeen eta tradizioen arabera.

Erabilgarritasuna. Kantitatea eta kalitatea, biktima guztientzat.

BAGZen erabilgarritasunari buruzko pertzepzioa aztertzean, horien «erabilgarritasun materiala» eta «efektiboa» bereiziko ditugu. «Erabilgarritasun materialak» zerbitzuetara iristeko aukerak eta erraztasunak eta zerbitzuen kantitatea eta kalitatea islatzen ditu; eta «erabilgarritasun efektiboaren» bidez, berriz, islatu nahi da emakume ijitoek zerbitzuok zenbatean dituzten «erabilgarri».

Erabilgarritasun efektiboa

Gizarte-zerbitzuek eta ijito-erakundeek adierazi dute normalean lehen harremana ez dela zuzenean genero-indarkeriarekin lotuta egoten, baizik eta beste gai batzuekin lotuta, hala nola gizarte-prestazioekin, hezkuntzarekin edo etxebizitzarekin.

«...paperen kontuengatik etortzen dira, DSBEa dela eta. Zer gertatu den kontatzen dizute (edo ez), baina zuk badakizu. Bakarrik daudelako etortzen dira, eta DSBEaren edo etxebizitzaren gaia konpontzen ez badute, haurrak eramango dizkietelako. Eta zerbitzuetan sartzeko beldur dira, haurrak kenduko dizkieten beldur» EE2.

Hona hemen genero-indarkeriagatik BFAZetan sartzeko modu edo bide nagusiak:

- Ijitoen erakunderen baten bitartekaritza.
- Poliziaren aurretiazko atestatuaren bidez bideratzea.

Genero-indarkeriaren biktima den emakume ijito batek oso gutxitan erabakitzen du BAGZekin harremanetan jartzea tratu txarrekin lotutako arrazoiengatik. Kasu gutxi horietan behar ekonomikoak eraginda egiten dute, «Etxebizitzarik ez dutelako, baliabiderik ez dutelako, dirurik ez dutelako...» EOB. Aurreko atalean luze azaldu ditugun arrazoiengatik, BAGZetara iristen diren emakume ijitoak muturreko egoeran daudenak dira, inguruan laguntza-gaitasuna galdu dutenak. Horregatik, biktimak artatzeko unean gehien eskatzen den baliabideetako bat da seguru sentitzeko eta hurrekin bizi ahal izateko aukera ematen dien etxebizitza bat eskuratzea.

Ijito-erakundeek bitartekaritza eta laguntza-formulei dagokienez, genero-indarkeria pairatzen duten emakume ijitoen eta BAGZen artean «bisagra» funtzioa dutela azpimarratu behar da. Hala ere, garrantzitsua da ohartaraztea erakunde horietako batzuek hainbat muga dituztela, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan. Gehiegi inplikatzeko arazoak ekar diezazkieke beren komunitatearekin: emakumeak salaketa egin dezan bultzatzeagatik akusatzea eta/edo beren lana egiten jarraitzeko zilegitasuna galtzea.

«...emakume ijito hori salatzeraz laguntzen badut, edo lekuren batera eramaten badut, emakume horrek esango du *“ni urliarengatik edo sandiarengatik joan naiz”*, eta niri zera esango didate: *“Zuk zergatik eraman duzu hara? Nor zara zu, ba, gurekin hitz egin gabe, nire semeari kalte egiteko...”*» Hori gure ijito-forman konpondu behar da lehenik, gure lekeen arabera (...) Emakumeak erreakzionatu behar du, zuk ezin diozu esan zer egin behar duen. Esan diezaiokezu zer bitarteko dauden... Baina, egia esan, emakume ijitoarentzat ere ez dago askorik» EOB

Horregatik, haietako batzuek biktimarekin modu estrategikoan lan egin behar izaten dute, «entzun, jaso, batera eta bestera lagundu, orientazioa eman...» EE2; edo haren familiarekin lan egiten behar izaten dute, «emakumearen familiari jarraibideak eman, elkarteak gizonaren familiarekin arazorik ez izateko» EOA. Bitartekaritza, beraz, bi baldintza horien mende dago. Erakundeek eskatzen dute emakume ijitoei lagun egiteko figura bat sortzeko, elkarrizketa eta baliabideetarako sarbidea erraztu dezan.

«... figura bat behar da (...), ezkutuan lagun egingo duena, emakumeak behar duen horretan, berak ahal duen moduan eta ahal duenean. Ez dugu nahi polizia etor dadila eta eraman dezala indarrez, edo eraman dezala gizona. Hori ez. Hori *galbidea* litzateke bi familia ijitoren artean. Salatu egin duzulako, polizia etorri delako eta gizona eraman egin duelako... Dena galdu duzu horrela²⁵... Emakumea atera behar da tartetik, familiari minik eman gabe; izan ere, emakumeak ez du inoiz ezer egingo, horrek familia arriskuan jartzea eragin badezake» EE2

EAEko hiru hiriburuetakoa BAGZetako profesionalekin egindako kontrastearen arabere-

25 Ijitoen legeak eskaintzen dizkion justizia- eta babes-aukerei dagokienez.

ra²⁶, azken urteotan arreta eskatu duten emakume ijitoen kopurua oso txikia da, bai gizarte maioritarioan erregistratu eta artatutako genero-indarkeriako kasu-ratioaren aldean, bai EAEko gizartearen parte diren beste emakume arrazializatu batzuen aldean²⁷. Gipuzkoa osoan, azken hiru urteetan hogeik kasutik beherakoa da zifra. «Azken lau urteetako datuei begira egon naiz, eta, egia esan, zaila da guretzat, ez diogulako etniari erreparatzen... Azken hiru urteetan 16 emakume (*ijitoak*) eta adingabe bat» CSSGF1. Donostiako udal-eremuan, kasu bakarra erregistratu da. Gasteizen, ijito-populazioaren kontzentrazio handiena duen auzoetako bateko oinarrizko zerbitzuetan, kasu bakar bat ezagutzen da hitzez. Bilbon ere proportzioa oso txikia dela adierazi dute. Hala ere, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako hainbat profesionalak adierazi dutenez, beste gai batzuen inguruan eskaintzen duten arretaren bidez, uste dute arreta jaso dutenak baino askoz ere kasu gehiago daudela. «Emakume ijito askok gizarte-zerbitzuetara jotzen dute, baina inoiz ez genero-indarkeriagatik» CSS. Guztiak bat datoz gauza batean: arazoa da biktimak «ez direla iristen».

«Erantzun erraza (*zerbitzuen erabilgarritasunari dagokionez*) baietz erantzutea da, hau da, zabalik dagoela esatea eta beste edozein emakumeri bezala eman-go litzaiokeela arreta. Beste kontu bat da zergatik hurbiltzen ez diren galdetzea. Halakorik egiten ez badute, haiengana iristen ari ez garelako da» CSSG

Beste BAGZ batzuen arabera, hurbiltasunik eza edo arazo espezifiko horri dagokionez zerbitzu gisa «iristeko» zailtasunak daude. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoentzat tresna edo baliabide baliozkoa izateko estrategia edo formulen artean, profesionalak aliatu bihurtzearen alde egiten dute, adibidez, ijitoen erakundeekin batera lan eginez.

«Komunitateetatik hurbilago egotea (...) ez fisikoki, baizik eta aliatu gisa ikus gaitzatela» CSSB

«Nik uste dut zerbitzu publikoetatik oso urrun daudela, orduan bai, gure erantzukizuna izango litzateke hurbiltzea... Gertatzen dena da hurbiltzeko ez lukeela balioko edozein emakumerekin aplikatu litekeen modu estandarizatu berberak. Horregatik, haien elkartearen bitartez jardun behar da, uler dezaten ez duzula ezer bortxatuko, ez duzula haien kultura aldatuko» CSSG

Galdera honi dagokionez: *Egin al da hausnarketarik maila pertsonalean edo instituzionalean aztertzeke ea zergatik ez den emakume ijitoen (ia) kasurik iristen?*, BAGZetako profesional guztiak bat datoz erantzunean: gogoeta instituzional sistematizaturik ez dagoela adierazi dute guztiek. Hala ere, maila pertsonalean eta profesionalean nola-baiteko elaborazioa egon da. Gizarte-zerbitzuetako teknikariek jasotako uste edo pertzepzioen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

²⁶ Eta Gipuzkoako BAGZak. EAEn ezaugarri horiekin finkatuta dagoen foru-zerbitzu bakarra da, horregatik emaitzak.

²⁷ Ezin da zifra zehatzik lortu; izan ere, beste zerbitzu batzuetan bezala, zerbitzu mota horrek ez du arreta jasotzen duten emakumeen kidetasun etnikoa islatzen duen erregistro zehatzik. Baieztapen hori elkarriketatutako zerbitzu-arduradunen pertzepzioan eta memorian oinarritzen da.

- Ingurukoen presioak eta errepresaliek zerbitzu publikoetara jotzea eragozten dute.
- Beste gai batzuen inguruan ematen zaien arreta-denboran lotura sendo eta konfiantzazkoa sortzeko zailtasunek oztopatu egiten dute biktimak laguntza eskatzeko adina konfiantza hartzea.
- Indarkeriaren arazoa «ezkutuago» eta «normalizatuago» dago ijito-komunitatearen barruan.
- Emakume ijitoei asko kostatzen zaie genero-indarkeriako egoera batean daudela identifikatzea, eta, zerbitzu publikoetara iristen direnean, oso egoera larriak dira.

Funtsezkoa da ohartaraztea «ijito-komunitatearen barruan indarkeria normalizatuagoa dagoela» bezalako baieztapenek ijito-herriaren ikuspegi estereotipatu eta esentzializatzailea islatzen dutela, gure errealitatea ez ezagutzetik abiatzen direla eta gizarte maioritarioa blai dagoen egiturazko antiijitotasunaren adierazpen argia direla. Praktikan, ijito-komunitateari «biolento» deitzearen baliokidea da.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoak zerbitzura ez iristeko arrazoiengatik inguruan duten pertzepzioari erantzuteko, kontrastean parte hartu duten profesionalenak batek bakarrik aipatu ditu ijito-herriaren autobabeserako mekanismoak.

«Pentsa, polizia-txosten bat iristen zaigu, eta pisura iristen direnerako, lehen-gusina edo arreba baten etxera joanak dira... (...) komunitateak hesi bat jarri du jada, haien artean babestu egiten dira, eta horregatik ez dira iristen. Gero ikusiko dugu une horretan aukerarik egokiena ote den, edo egoera horretarako egokiena den...» CSSB

Lotura sortzea funtsezkotzat jotzen dute zerbitzuek, erakundeek eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek. «Lagun egitea behar da, zerbitzuetan sartu aurretik, bitartean eta ondoren (...) Ezinbestekoa da emakumearekin lotura estua sortu ahal izatea, hitzaldien, prestakuntzaren eta abarren bitartez» EE2. Hala ere, oinarritzko gizarte-zerbitzuetan zailtasunak ikusten dira jarraipenari eusteko; izan ere, askotan, emakume ijitoak ez dira joaten proposatzen zaizkien hitzorduetara, nahiz eta ordutegi egokitan eman. Langileek diotenez, emakume ijitoei tratatu txarrak pairatzen egon daitezkeela aipatzen zaienean, batzuk altxatu eta joan egin dira. Ijitoen erakundeek ohartarazi dute akats bat dela gai horri zuzenean heldu nahi izatea: «...ohartu behar duzu haiek direla premia hori sentitzen dutenak, edo trebea izan behar duzu haiengan behar hori sortzeko (...) Testuinguruan jarri behar dira, beraiek eman dezaten erantzuna. Kontua ez da nik, edo zuk, edo besteak esatea... Ez, haiek beraiek konbentzitu behar dute, nik ezin dut ezer inposatu» EOA. Nolanahi ere, arretaren erabilgarritasun efektiboaren gaineko eta arreta egokitzeko erantzukizuna BAGZek hartu behar dute beren gain, eta ez genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek.

Aurreko ataletan deskribatu ditugun arrazoi eta inguruabarrez gain, hots, emakume ijitoek BAGZetara ez jotzeko edo horiek erabilgarritzat ez hartzeko egiturazko kausez gain, estuki lotutako beste bi elementu aipatu nahi ditugu.

- Gizarte-zerbitzuen «fiskalizazio» eta eraso gisa ikusten dutena saihestea.
- Haurren zaintza kenduko dieten beldurra.

Horrekin lotuta, emakumeek adierazi dute behin baino gehiagotan diskriminatuta eta umiliatuta sentitu direla gizarte-zerbitzuen asistentzia-ekintzaren aurrean. Eztabaida-taldeetan, emakume batzuek adierazi dute lan-merkatuan sartzeko gaikuntzaren batean parte hartu dutenean, lan-elkarrizketara «garbi» joan behar dutela zehaztu zaie-la. Beste batzuek, berriz, adierazten dute seme-alaba gehiago ez izatera «gonbidatu» dituztela, jada badauzkan hurrei bizitza «hobea» eman ahal izateko.

«Polizia-salaketa jartzen baduzu, arazoak izango dituzu bi familiekin», «Eta gero bertan utziko zaituzte otsoaren ahora bidean» (*Gizarte Zerbitzuez ari garela*), «Otsoaren ahora, gauza txikienarekin, hiru egunera bota egiten zaituztelako (aterpetxetik) eta seme-alabak kentzen dizkizutelako» ETG

Elkarrizketatutako BFAZetako kide gehienek ere hautematen dute haurren zaintza kentzeko beldur hori.

«Nik beldur asko ikusi ditut, batez ere, seme-alabak badituzte. Izan ere, azkenean erakunde batean zaude, aztertua sentitzen zara, epaitua sentitzen zara... Horrela izan ez dadin saiatzen gara, baina haiek askotan etortzen dira beldur horrekin; *"Epaituko ote naute, aztertuko ote naute, ama ona ez naizela esango didate... Ai ene! Eta seme-alabak kendu egingo dizkidate"*... Esaldi hori oso ohikoa da, ez bakarrik zerbitzu honetan, bisitatzen duten ia edozein erakundetan» CSSB

Hala ere, BAGZek adierazi dute haurren zaintza kentzea ez dagoela haien eskumenen artean: «Guk ez dugu adingabeen babesgabetasunari buruzko baloraziorik egiten hemen. Beti zaude arriskuan, baina ama zarelako. Eta ikastetxe baten jakinarazpenik badago...» CSSB. Hori nahiko hedatua badago ere, elkarrizketatutako emakume ijito guztiek ez dute adierazi kezka hori izan dutenik. «Begira, ni ez nintzen horren beldurrez. Hasieran, gizarte-laguntzailearengana joan nintzen eta azaldu egin nion. Esan zidan ez kezkatzeko, lagundu egingo zidatela. Aurrezki-plan bat egiten hasi ginen, amaren etxea ez zen beste leku batera joan ahal izateko. Izan ere, han aurki nintzaketen, eta eskandalua sortu (...) Niretzat (laguntzailea) aingeru bat izan zen» IB5. Salbuespenezko kasu horretan, komunitatearen babes-gaitasuna galdu eta salaketa poliziala jarri ondoren, emakumea gai izan da moldatzeko, eta zerbitzuen prozeduretara egokitzen jakin du. «Patriarkak esku hartu zuen arren, haiek ez zuten jaramonik egin; beraz, salaketa formal bat jarri behar izan nuen (...) Alde horretatik, nik ez nuen zorterik izan (...) laguntza eske *hamaika* lekutara mugitu naizelako lortu dut lortu dudana. Zentzu horretan ez dit lotsarik eman» IB5. Orain arte azaldu dugunez, ohikoena da emakume ijitoek BAGZetara jotzeko zailtasun eta eragozpen ugari izatea. Gizarte maioritarioan diren arazoen oso antzekoak dira batzuk, hala nola tratatu txarren biktima izatearen estigmari aurre egin behar izatea, edo prozesu judizial osoa pairatu behar izatea. «Oso gogorra da laguntza eskatzea (...) zure bizitzako *iragarkia* hautsi behar duzu, hori zure bizitza ez dela esan behar duzu; modu batean proiektatzen duzu, baina fatxada baino ez da, gure et-

nian... *"Hara! Seme-alabekin dago, ogibidea dute, kultura joaten dira, mutila ez-dakit-zer da"* (...) Horrela gertatzen da bai ijitoen artean, bai ijito ez direnen artean. Nik emakume bat baino gehiago ezagutzen dut epaiketak dakarrenarengatik salaketa jarri ez duena, gizonarekin topo egin behar izateagatik... Hortxe geratzen dira» IB1.

Erabilgarritasun materiala

Zerbitzuen erabilgarritasun materialari dagokionez –zerbitzura jotzeko zailtasun espezifikoa, kantitateari eta kalitateari dagokienez–, horiek erabili dituzten elkarrizketatutako emakume guztiek adierazi dute behin erabakia hartuta ez zutela arazorik izan zerbitzuetara jotzeko.

Gehienak poliziak bideratuta iritsi ziren zerbitzuetara, atestatua edo ofiziozko salaketa egin ondoren. Haietako bat erreferentziako gizarte-langilearekin konfiantzazko lotura ezarri ondoren iritsi zen zerbitzura; «Ijitoen artean bezala, aitarekin hitz egin zuen. Egia da gizonaren aita saiatu zela bera bere lekuan jartzen, baina berak ez zion jaramonik egiten (...) Arazoa izan zen aitak ardura galdu zuela, eta esan zuela: *"Hor konpon, egizu ahal duzuna"*. Eta orduan hasi nintzen ni //gizarte-langilearen izena//-(e)ri kontatzen zer gertatzen ari zitzaidan» IB5.

Elkarrizketatutako beste emakume batek oso positiboki baloratzen du BAGZetara modu seguruan sartzeko modua aukeratu ahal izatea, bere beharrian eta lehentasunen arabera: «Zuzenean deitu nuen (*genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzura*) eta hau esan zidaten: Hona etor zaitezke zuzenean; nahi baduzu, taxi bat hartu, edo polizia patruila bat bidal dezakegu... Ez, ez; taxia hartuko dut. Ez kezkatu taxia ordaintzeko dirurik ez baduzu; zuk hartu taxia eta guk ordainduko dugu hemen. Bada, halaxe egin nuen» IB4. Azkenik, guztiek adierazi dute profesionalen berotasuna, zaintza eta errespetua sumatu dutela harrera-prozesuan.

Moldagarritasuna. Indarkeriaren ondorio bereziak identifikatzea.

BAGZekin egindako kontrastearen bidez, galdetu dugu profesionalak zer iritzi duten asistentzia-ekintza eta baliabideak egokitze gaitasunari buruz. Honako galdera honi dagokionez: *Zure ustez, zer ezagutza-maila duzu, beren berezitasun kulturala dela eta, genero-indarkeria pairatu duten emakume ijitoek bizi dituzten inguruabarren inguruan?*, erantzun ezberdinak jaso dira, zerbitzua eta ibilbide profesionala zein diren. Gehienek diote ezagutza urria dutela erreferenterik ez dagoelako (artatutako mota horretako kasuak). Beste batzuen ustez, beren egoera guztiz ulertzea ezinezkoa den arren (beren komunitate berekoak ez direlako), ijitoen erakundeekin egindako lan-esperientziak nolabaiteko ulermena eman die, «komunitatearen barruan ez dagoen edonork izan dezakeena» CSSB.

Berriz ere, genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen inguruabar espezifikoak buruzko iritzirik ohikoenak lotuta daude ijito-komunitateak indarkeria gehiago onartzearekin, emakume ijitoek tratatu txarren harremanaren barruan igarotzen duten denbo-

rarekin eta emakume horiek, ingurunearen balizko errepresaliengatik, salaketa jartzeari dioten beldurrarekin.

Hurrengo galderari (*Zure ustez, zerbitzuak eskaintzen duen arreta egokitzen al da indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen egoera eta beharrizan espezifikoetara?*) baietz erantzun diote BAGZetan elkarriketatutako profesional guztiek. Beren ustez, euren egokitzeko gaitasunak –protokoloak aplikatzeko eta zerbitzuak esleitzeko malgutasunak eta/edo talde teknikoaren berezko sentikortasun eta esperientziak– aukera ematen die emakume ijitoen premietara egokitutako erantzuna emateko eta, are gehiago, ikuspegi intersektionala kontuan hartzen duen erantzuna emateko.

«Emakumearen inguruabarretara egokitzen gara beti, ijitoa izan zein ez. Hori da gure zerbitzuaren helburua, bere beharretara egokitzea» CSSGF1

«Baietz uste dut; izan ere, kasu bakoitza oso modu espezifikoan baloratzen da. Ez dugu inoiz protokoloaren arabera jokatzeko, ez; emakume bakoitzak behar duenaren arabera jarduten dugu, eta zerbitzua bere beharretara egokitzen joaten gara (...) Beti hartzen dugu kontuan kultura, hizkuntza, nondik datorren... Gauza asko landu behar dira emakume horrek indarkeriarik gabeko bizitza izan dezan» CSSB

Aztertutako diskurtsoetan oinarrituta, biktima diren emakumeen pertzepzioa da BAGZak gai direla berehalako premiei modu egokitan erantzuteko (biktima hartzea eta arriskutik kanpo dagoen leku batera transferitzea), genero-indarkeriaren biktima izateagatik dituzten inguruabarrei dagokienez. Inguruabar horiek, kasuistika eta puntu komun desberdin asko daudenez, indarkeriaren biktima izan diren beste emakume batzuen antzekoak izan daitezke. Zentzu horretan, denek adierazi dute pozik daudela zerbitzua emateko moduarekin eta kalitatearekin, eta eskerrak eman dizkiete.

«Oso ondo artatu ninduten. Mezuak neuzkan; irakurri egin nizkion, eta *a ze elementua!*, esan zidan» IB3

«Lehenik, bulego batean hitz egin genuen laguntzailearekin (...), begiak nola nituen ikusi zuten, eta aterpetxera eraman ninduten. Oso ondo, errespetu handia jaso nuen; pena handia genuen denek, jakina, nik adin bat banuen eta! (...) Nik gauza asko kendu nituen burutik, erotu egingo nintzen bestela eta. Aholku on asko eman zizkidaten, senarrarekin hitz egin zuten banantze adostua egon zedin; hori zen nik nahi nuena, familien artean dena ondo gera zedin» IB4

«Ez dute GLUZaren kexarik; aitzitik, ulerkorrak dira, elkarren lagun egiten dira, janari oso onak prestatzen dizkiete, denetarik dute haurrentzat...» EOB

Oro har, harrera-baliabideak erabili dituzten elkarrizketatutako emakumeek balorazio positiboa egin dute larrialdi-egoeretan aterpetxean sartzeko aukeraz, baita langileek emandako tratuaz ere.

«Gu geunden etxebizitza (*aterpetxea*) oso ona zen; patiodun etxabe bat zen, haurrentzako zabuak zeuden, nork bere gela eta bainugela zituen, eta ez genuen partekatu behar; janaria oso gozoa zen... Lagunak egin nituen, lagun asko» IB1

«Aterpetxean arreta zoragarria izan da» IB4

Hala ere, pertzepzioa aldatu egiten da kultura-gai espezifikoei lotutako premiei dagokienez. Erakundeen zein indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoen arabera, indarkeriaren ondorio bereiziak aitortzeari dagokienez, arreta ez da behar beste egokitzen. «Emakumeekin esku hartzen jakiteagatik ez duzu zertan interseksionalitatetik lan egiten jakin; ez dakizu, zuk ez duzulako hori bizi... Zuk emakume zuri batekin egingo zenukeena egiten duzu, hori irakatsi dizutelako» EE2. Arazoa epe ertainean sortzen da, beren premiei erantzuten ez dieten eta haien egoerara egokitzen ez diren baliabideak erabiltzeko arau jakin batzuk betetzeko eskatzen zaienean. Gai hori honako hauei lotuta antzematen da batez ere:

- Behar espezifikoak harrera- eta etxebizitza-baliabideei dagokienez.
- Lan-merkatuan eta etxebizitzan sartzeko orduan pairatzen duten diskriminazioa kontuan hartzen duten baliabide egokiturik ez egotea.
- Arrazoi kulturalengatik polizia-salaketa bat jartzerakoan dauden zailtasun espezifikoak kontuan hartzen dituzten baliabide egokiturik ez egotea.
- Laguntza psikologikorako beste formula batzuk.

Zenbait kasutan gizarte-zerbitzuen asistentzia-eskumenak gainditzen dituzten puntuak dira, bereziki udal-eremuan. Hala eta guztiz ere, interesgarria iruditzen zaigu atal honetan horiek jorratzen hastea.

1. Behar espezifikoak harrera- eta etxebizitza-baliabideei dagokienez

Harrera- eta etxebizitza-baliabideetako premia espezifikoak honako hauekin lotuta daude batez ere: (i) BFAZe laguntza eskatzea erabakitzen duten emakume ijitoen larrialdi-, kalteberatasun- eta babesgabetasun-egoera berezia; (ii) etxebizitza edo etxebizitza berriaren kokapena; eta (iii) egoerari aurre egiteko orduan duten deserrotze-egoera.

Luze eta zabal azaldu dugu indarkeriaren biktima diren emakume ijitoak nola iristen diren BAGZetara. Erakundeek, gainera, kasu horiek premiazkoak direla azpimarratu dute: «Emakume ijito batek laguntza eskatzen duenean, laguntza une horretan behar duelako da. Ezin du burokraziaren zain egon...» EOB. Deserrotze-egoerari dagokionez,

emakume ijitoaren egoera ulertu behar da; izan ere, bizitegi-baliabidea erabili ahal izateko, segurtasun-arrazoiak direla medio, bere kultura-ingurunetik isolatu behar du, bertan oinarritzeko laguntza gutxi batzuk baino geratzen ez zaizkiola. Horrela, bere familia-lotura eta/edo kulturalki barneratuta dituen betebeharrak haustera behartuta dago. Deserrotzea hain da jasanezina, ezen zerbitzuak ahaideei laguntzera ez joateko ezarritako arauak hausten baitituzte askotan.

«Nire arreba oso gaixorik zegoelako atera nintzen aterpetxetik, eta lehengusina bat hil zen» IB4

«Ama gaixotzen bada, hura zaintzeko //hiria//-(e)ra bi egunez joatea normala da gure kulturen. Ez dugu baimenik espero, ezta eskatzen ere... Ama gaizki dago, eta banoa» EOB

«Aurrez aurre ijito bat izango banu, eta erakundeak ijitoak izango balira, jakingo lukete nik seme-alabak ikusi beharko ditudala bai ala bai. Familia ikusi beharko dudala bai ala bai. Orduan, senideekin elkartzeko guneak jarriko nituzke, baina ez lekutan... Eta aldian behin joateko, amak nahi duenean edo hura ikusteko beharra dudanean. Beste kode batzuk izango lirateke. Horrela ni erosoago sentituko nintzateke, eta nire prozesuari eutsi ahalko nioke denbora luzeagoz. Nire familiatik kanpo sentitzen banaiz... Nahiko beldur naiz dagoeneko; izan ere, salaketa jarri badut, berarekin itzuli naizelako da, eta jada ez dudalako nire familiaren babesik. Arreba, ama izango nituzke... Hau da, hurbilekoenak. Eta horiek kentzen badizkidazu... Orduan, zer geratuko zait?» EE2

Azkenik, horrelako egoerak bizi dituzten emakume ijitoek ez dute senide hurbilenengandik urrun egon nahi, eta ez dira seguru sentitzen bizileku duten etxebizitza beren familiarengandik edo erasotzailearen familiarengandik hurbilegi badago. Gizona hurbiltzeko arriskuagatik gertatzen da hori, horrek errepresaliak eragin ditzakeelako.

«Sei hilabete bete arte (*urruntze-aginduagatik*) gizona ez da blokeratu hurbildu, baina sei hilabete igaro ondoren, han zehar paseatzen ibiltzen da. Nire anaiak badakite iraintzen ninduela, birao egiten zidala... Nik salatu nuenean agerian geratu zen berak egiten zidan guztia, ordura arte nik isil-isilik gordeta izan nuelako dena (...) Beraz, elkar ikusten badute, ez dakit nola amaituko den guztia. Eta etxebizitza-arloan oraindik ez didate aldaketa eman. Nik aldaketa nahi dut; izan ere, bera etxea ematen didaten lekura etorri arren, nire anaiak inguruan egongo ez direnez,adore handiagoa izango dut hari aurre egiteko, poliziari deitzeko, edo alde egin dezan esateko. Baina nik ezin dut hori egin anaiak gertu daudenean, entzuten badidate, haiek aterako baitira ni defendatzera» IB2

«Nirea (*etxebizitza*) nahi izanez gero, gizona bota egingo zutela esan zidaten. Baina nirea senarraren familiaren ondoan dago. Gure kulturen hori ezinezkoa zen. Nire senarraren familiak ez du utziko bera etxetik botatzerik (...) Etxebizitza bat emango zidaten, baina hemendik kanpo; nora joango naiz ni, 66 urteko emakumea, irakurtzen ere ez dakit eta aldaka txarto izanda...?» IB4

«Zuk pisu bat baduzu, berak joan behar omen du. Baina noski, badaki non bizi zaren. Eta, noski, atarian itxaroten digute... Batez ere haiek zelatatu behar dira, eta gu beste norabait eraman behar gaituzte» IB1

2. Lan-merkatuan eta etxebizitzan sartzeko orduan pairatzen duten diskriminazioa kontuan hartzen duten baliabide egokiturik ez egotea

Etxebizitza berri bat esleitzeko prozesu publikoan sortzen diren arazoetako batzuk aipatu ditugu orain arte. Hala ere, **pairatzen duten diskriminazio espezifikoak aitortzen duten baliabide egokiturik ez izatea** lan-merkatuan sartzeko edo etxebizitza pribatu bat alokatzeko zailtasunetan islatzen da gehienbat (urrats hori eman ahal izan behar dute, harrera-baliabideak denbora-muga jakin bat baitauka).

«Ados (nik pisua bilatzen dut), baina nirekin etortzea nahi dut, ikus dezazun zer-nolako diskriminazioa dagoen emakumeenganako, are gehiago ijitoak bagara, eta areago bakarrik eta hurrekin bagaude. Ikusi zuten nik ez nuela errurik. Nominak eskatzen badizkizute, fakturak... Bueno, ez ditudan kontu pila bat. Bestetik, 50 metroko pisu batean; esaten dizute, "tira, zatoz pisua ikustera". Bakarrik eta hurrekin sartzen ikusten zaituztenean, tratu txarren biktima eta ijitoa... Badakizu nola egiten dieten zaldiei markatzeko?» VS1

Lan-eskaintzei eta -elkarrizketei dagokienez, gizarte maioritarioan den antiijitotasunaz gain, kontuan hartu behar da emakumeak direla eta, oro har, haurrak dituztela ardura-pean.

«Psikologikoki lur jota nengoen, ez nengoen lanerako (...). Iruditzen zait, aurkeztu zarenen, seme-alabarik duzun galdetzen dizutela beste ezer baino lehen (...) Jakina, goizeko ordutegia behar nuen nik, zeren arratsaldean non utziko nituen umeak? Hiru dira» IB1

«Eta, gero, lan bat eskuratzeko aukera izatea, independente izateko zerbait, emakume horien kasuan²⁸ gizonak kontrolatzen baitu dirua...» EOB

3. Arrazoi kulturalengatik polizia-salaketa bat jartzerakoan dauden zailtasun espezifikoak kontuan hartzen dituzten baliabide egokiturik ez egotea

Hirugarrenik, emakume ijitoek, orain arte azaldutako guztia kontuan hartuta, zailtasun handiak izaten dituzte **salaketa jarri nahi ez izateagatik**; horrek *de facto* ukatzen die salaketa jarri eta biktima aitortu gisa lortuko lituzketen baliabide edo erraztasun berdinak eskuratzeko aukera (adibidez, urruntze-agindua, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa²⁹). Ildo horretan, BAGZen eskumen-aukera handiagoa falta dela uste dute

²⁹ Laguntza ematen zaie biktimaren egiaztatzea lortzen duten emakumeei, eta, horretarako, ezinbestekoa da babes-agindua bat izatea, kondena-epai bat, edo, salbuespenez, Fiskaltzaren txosten bat.

indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek.

«Berdintasun-arlorra joaten bazara laguntza eske, tratu txarrak pairatzen dituzulako, zuk badakizulako tratu txarrak direla, baina salaketarik, urruntze-agindurik ez badago, ezin dute ezer egin, ezin dizute lagundu» IB1

«Ez naiz tratuaz kexatzen, asko lagundu didate (*laguntzaileek*), baina nahiko nukeen aginpide gehixeago izan balute» IB5»

BAGZek azaldu dutenez, salaketarekin edo salaketarik gabe, emakumeek eskura dituzte haiek eman ditzaketen baliabide guztiak (laguntza psikologikoa, harrera-baliabidea eta aterpetxea). Duela urte batzuetatik, BOEak ere eskura daitezke txosten sozial baten bidez.

«Egiaztagiria behar da (*etxebizitza-eskaera*), genero-indarkeriaren biktima zarela egiaztatzen duen papera, Eusko Jaurlaritzarena. Oro har, guk txostena egiten dugu horretarako beharra ikusten dugunean, nahiz eta babes-agindurik ez egon; izan ere, txosten sozial batekin badago eskatzea» CSSB

«Egoera justifikatzen duen txosten bat aurkeztuta, badago eskatzea. Hasieran salaketarekin egiten zen soilik, baina orain, duela urte batzuetatik hona, ez da behar (...) Bada Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat, etxebizitzari buruzkoa» CSSG

Erakundeek azpimarratu dutenez, «egia da batzuetan erabaki dezakezula salaketarik ez jartzea, eta lagundu egiten dizutela, baina ez dituzu laguntza berberak» EOB. Detektatu den beste kasuistika bat da honako hau: biktima gisa egiaztatzea lortu arren, askok oraindik ez dute etxebizitzarik esleitzerik lortu. Horrek ondorio larriak eragiten ditu segurtasunean, biziraupenean eta sendatze-prozesuan.

«Tratu txarren biktima gisa egiaztatzeko paperak Eusko Jaurlaritzari bidaltzeko esan zidaten, etxebizitza-aldaketa aurreratzeko (egoera txarrean zegoelako eta haurrak nituelako ardurapean). Urteak igaro dira eta oraindik zain nago» IB3

«Etxe hori noiz emango didaten zain nago oraindik, ez omen dago etxe hutsik... Begira, ni honen beldur naiz: lehengoan haurren bila iritsi zen nire senarra, harroputz, ahobero... Eta nik leihotik esaten nion, *mesedez, ez zezatela ikusi...* (*emakumearen senideek*). Nik ezin dut horrela jarraitu. Izan ere, bai, kendu egin dut gainetik... Baina hor jarraitzen du» IB2

Erakundeek gaineratu dutenez, arau- eta laguntza-esparrutik harago, profesionalen borondatea da zerbitzuekin bitartekaritza egiteko gakoetako bat: «Guztiarekin bezala da, zein langile egokitzen zaizun, ulertu egingo zaitu edo ez, eta zurekin egongo da denerako; eta beste batzuek "A, salatzen ez badute, hor konpon" diotela dirudi (...) Dena da desberdina da zein profesional tokatzen zaizun» EOA. Hala eta guztiz ere, neurri egokituak ezartzeko betebeharra eragingo duten aldaketak egitearen aldeko apustua

egin dute erakundeek arau-esparruan, asistentzi-ekintzaren egokitzapena ez dadin zerbitzuetako langileen sentikortasunaren, borondatearen edo protokoloen aplikazio-malgutasunaren menpe geratu.

4. Laguntza psikologikorako beste formula batzuk

Azkenik, eskaintzen zaien **laguntza psikologikoari** dagokionez, bi gai aipatu behar dira: lehena, zerbitzuak eskaintzen duen profesionalarekiko lotura, eta haren gaitasuna. Zenbait emakumek adierazi dute zailtasunak izan dituztela beraientzat hain mingarria eta lotsagarria den gai bat jorratzen saiatzen denarekin hitz egiteko, sarritan aldeztetik konfiantzazko loturarik ezartzen ez dutelako, edo emakume ijitoen inguruabar espezifikoak ezagutzen ez dituelako.

«Ni ez nintzen joaten, ez nuen nahi, ez zelako denbora asko igaro (...) Psikologoarengana joateak nahasi egiten ditu barrenak... Pentsatu behar ez izatea da nahi duzuna, nahiz eta hori konponbidea ez izan (...), seme-alabekin barre egin nahi duzu, senideekin egon, besterik ez. Ez duzu hitzaldietara joateko gogorik, ezta beti gauza berari eragiteko gogorik ere (...). Geroago joan nintzen, baina ez zitzaidan gustatzen, prozesu horretan zaudenean (...); nire egoeran, irteteko beldur nintzen, ez nintzaten jarraitu. Gainera, ezertaz ezagutzen ez duzun pertsona batekin hitz egin behar duzu, eta gai horri buruz hitz egiten dizute, eta ez duzu horretaz hitz egin nahi» IB1

«Ez dute uste burutik txarto daudenik, ez dute ikusten (...) ez dira "tira, lur jota nago..." esaten duten horietakoak, ez; emakume ijitoa ausarta da, aurrera egin behar duela esaten dio bere buruari, seme-alabak aurrera atera behar dituela, borrokatu... Ez dute hori ikusten. Uste dut gehiago behar dutela senarrarengandik eta familiarengandik independentzia handiagoa ematen dien alderdia» EOB

Bigarren gaia bere komunitatearekiko menpekotasunarekin eta bere autonomiaren prekarizazioarekin lotuta dago (tratu txarren ondorioz). Familia-nukleo babesle baten barruan sozializatzeko, eta (oro har) oso gaztetatik tratu txarren emailearekin bizi izan duten menpekotasun-harremana eta autonomiarik ezak, are gehiago zailtzen dute emakume hauen egoera ulertu eta baloratzeko bidea.

«Eta gero, ezerezetik, nahi duzuna egin dezakezu. Ez duzu inor horrelakorik esango dizunik: "Ez ezazu hau egin, egin ezazu hau, hartu diru hau erosteko..." Bat-batean bakarrik zaude munduan, arrain bat itsasoan askatzen duzunean bezala. Nik haren falta ere sentitu nuen tarteka. Zeren nik orduan ez baineukan zer egin behar nuen esango zidan inor. Egoera horretan zaudela ikustean, zer gertatzen da? Bada, haren falta sumatzen duzula... Rol batera behartzen zituen, erosketak... Mundu oso bat da erortzen zaizu gainera... (...) Horixe esaten nien langileei: "Lagun nazazue, galduta nago eta". Une batean etxetik ere ez nintzen irteten (...) Maitasun handia eman didate (*langileek*), laguntza handia, oso ondo tratatu naute, "zuri laguntzeko gaude"... Baina ez zeuden, eta nik gaez ezin izaten nuen lorik egin, umearengatik eta guztiari bueltak ematen nizkiolako» IB1

Azaldu berri dugunak ez du esan nahi ematen zaien babes emozionala aintzat hartzen ez denik. Hala ere, ahalduntze-prozesua eta autonomia indartzeko prozesuan eragin positiboa izan dezan, estuki lotuta egon behar du emakumeen behar materialak asetzearekin: «Noizean behin babesa eta laguntza jasotzea, hitz egitea, entzuna sentitzea, bizitza nola doakigun kontatu ahal izatea eta etxebizitzarekin laguntzea, prestakuntza jaso eta lan egin ahal izatea...». IB3. Hori dela eta, ezinbestekoa da prozesu osoan zehar emakume horien premia materialak eta psikologikoak eraginkortasunez betetzeko koordinazioa erraztuko duen figura bat izatea. Zerbitzuen artean koherentzia lortzea da helburua, zerbitzuen preskripzioan ikuspegi gehigarri hutsa ezartzetik harago.

BAGZen erantzun ohikoenetako bat da artatzen dituzten emakume guztiak berdin tratatzen dituztela, beren jatorri etnikoa edo beste alderdi batzuk edozein direla ere. Baiez-tapen horrekin, ematen den arretan inolako diskriminaziorik egiten ez dela azpimarratu nahi dute. Ez dago kontzientziarik, hain zuzen ere, ustez berdinzalea den tratu horrek berak eragin ditzakeela bigarren mailako biktimizazioak. Alde horretatik, tratu-berdintasunak ezin du zerbitzuen ekitaterik eta egokitasunik eza justifikatzen jarraitu.

Egokitasuna. Biktimen behar eta ikuspegiekiko sentikortasuna.

BAGZen egokitasunari dagokionez, profesionalen gaikuntzari buruzko pertzepzioaz, biktimek erabakiak hartzeko duten autonomiarekiko errespetuaz eta bigarren mailako biktimizazio modu batzuek galdetu da.

Zure ustez, langileak behar adina trebatuta daude genero-indarkeriaren biktima diren eta izan diren emakume ijitoak artatzeko? galderari dagokionez, elkarriketatutako BAGZek zein genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoek baiezko erantzuna eman dute, ñabardura bat eginda: beren kultura-premia espezifikoei erantzuteko zailtasunak dituztela. «Ijitoak artatu ditut, eta, nire ustez, gaituta egon bagaude» CSSGM2. Hala ere, ijitoen erakundeek ez dute pertzepzio bera.

«...horrelako premiarik ez duten arte... Eta horrek grazia handia egiten dit; izan ere, gertatzen denean zera esaten dute: "Ez, ez, guretzat bat gehiago da". Baina bat gehiago bada, zergatik deitzen didazu nola jokatu ez dakizula esateko?» EOA

«...ez dute ulertzen (*gizarte-langileek*)... Zera esaten dute: "hauek dira arauak, eta betetzen ez badituzu, hau ez da zure espazioa". Ez dituzte betetzen, baina zergatik ez dituzte betetzen? Etxe batean egon eta ama etortzea normala da berarentzat. Baina, beste lankide batzuk arriskuan jartzen ari bazara, ados, izan daiteke... Baina argi geratu behar du ez duela asmo horrekin egiten» EE2

Zertan datza gaikuntza hori? galdetu denean, BAGZetako langileek ez dute gogoratzen genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen inguruko inguruabarrei buruzko prestakuntza espezifikoak jaso dutenik. Bai, oro har, berezitasun kulturei dagokienez. Nolanahi ere, prestakuntzaren inguruko ikuspegia ez da berdina zerbitzu guztietan.

Elkarrizketatutako profesional batzuek balorazio positiboa egiten dute ijito-kulturara hurbiltzeko eta ijitoak hobeto ulertzeko aukera emango liekeen prestakuntza jasotzeaz; beste batzuek, ordea, adierazi dute arazoa beren eskumenetatik harago doanez, erantzun integral baten aldeko apustua egin beharko litzatekeela.

«Nik ez dut uste prestakuntza espezifikoa behar denik, baizik eta sartzeko estrategiak zein diren aztertu behar dela. Izan ere, kontua ez da soilik ijitoen kultura hobeto ulertu behar dugula, nahiz eta hori ere baden, kontua da emakume horiek urratze-egoera bizi dutela beren komunitatean (...). Hori dela eta, instituzionalki planteatu beharko litzateke nola sortzen den prebentzio-kultura bat ijitoen ingurunean, ez dagoela hemen "suak itzaltzen" ari garenon esku soilik» CSSG

Erakunde publikoak eta ijitoen erakundeak prebentzioaren inguruan egiten ari diren lana gorabehera, ijitoen erakundeek azpimarratu dute, langileek borondate ona duten arren, genero-indarkeriaren biktima diren ijitoen beharrian eta ikuspegiekiko sentibilizazioa ez dela aintzat hartzen ari, edo oztopoak sortu ahala egokitzen saiatzen ari direla. Arazo hori konpontze aldera, prozesuaren hasieratik ijito-figura bat egotearen alde egin dute arduradunek.

«Zerbitzuetara iristen den emakumea giro arrotzera iristen da. Eta eskuak eta hankak lotuta dituzte, hori ez delako beren lekua. Talde horietan ijito-figuraren bat izatea izango litzateke egokiena, edo bertan egon daitekeen norbait izatea» EOA

«Ez digute hasieratik deitzen, baizik eta emakumeek kulturari lotutako arazoak dituztenean... Arazo bat dagoenean, etxebizitza lortzeko bi hilabete geratzen direnean eta lortzen ez duenean... Edo bizikidetzaz arazoak daudenean... Ez, hasieratik hartu behar gaituzte kontuan» EOB

«Pertsona bat beharko litzateke bigarren etapa horretan pisuetan lan egiteko, ez prebentzioan, baizik eta laguntzen. Izan ere, ez dago horrelako baliabiderik. Baliabide hori behar da» EE2.

Dituzten aukerak ulertzeko jasotzen duten informazioari eta aholkularitzari dagokionez, emakume ijitoak eta BAGZak bat datoz, eta egokiak iruditzen zaizkie. Ijitoen erakundeek defendatzen dutenez, arazoa da biktimek amen egiten dutela, baina inplikazioez erabat jabetu gabe.

«Menpekotasun-egoera batetik irteten dira... Zer egin behar duten esaten diete "ondo iruditzen al zaizu...?" galdetuta, eta uste dute beraiek hartzen ari direla erabakia... Kontuan hartu behar da, gainera, egoerarik okerrenean daudela (*tratu txarrak pairatu dituzten emakumeak, baliabiderik ez dutenak*) (...) Antijitotasunaz jabetzea emakumeok pairatzen dugun sexismoaz jabetzearen antzekoa da...

Eta horixe bera gertatzen da era etorkorreetan tratatzen gaituztenean³⁰» EOB.

Etxebizitzaren arazoa sortzen da berriro. Elkarrekin salatu dute erantzuna ez dela ego-
kia, bigarren mailako biktimizazio modu larria eragin baitezake: izan ere, baliabide jakin
batzuk (etxebizitza edo laguntza ekonomikoak, esaterako) modu egokitan eskuratu
ahal izateak zuzenean eragiten du tratatu txarren harremanari amaiera emateko eraba-
kian.

«Ez, inondik inora. Izan ere, haiek hasiera-hasieratik onartu izan balidate etxebi-
zitza aldatzeko eskaera (ez da orain gutxikoa; urteak dira egin nuela), ahizparen
eta aitaren gainean egotetik libratuko ninduketen, eta duela asko jarriko nukeen
salaketa» IB2

«Ahizpen ondoan zegoen pisura aldatu nindutenean... Sakrifizio bat izan zen;
senarra are gehiago harrotzen zen, eta hark nahi zuena egin behar izaten nuen»
IB4

«Noski, emakumeek etxebizitza eskuratu nahi lukete, jakina, etxebizitza eta al-
derdi ekonomikoa dira gai nagusiak, (...) Tratu txarrak ematen dituenarekin it-
zultzen da, laguntza ekonomikorik ez duelako, etxebizitzarako laguntzarik ez
duelako, edo berak behar duen hori ez duelako. Ez diete ematen baldintzak be-
tetzen ez dituztelako; baina salaketarik gabe ere babes-etxebizitza batera joan
ahal izango balira eta ekonomikoki lagundu ahal izango baliote, prozesua amai-
tu egingo litzateke ziurrenik (...) Familiarekin arazoak badituzu, salaketa jartzea
nahi ez dutelako (arazoak saihesteko), eta, gainera, etxebizitzarik ez baduzu,
senarra geratu delako han, eta umeei bazeude, horiek ken diezazkizuten bel-
durrez (...) Eta gainera, sosik ez baduzu, bada, ezer gabe geratzen zara... Eta
orduan zer? Salatzen baduzu, ijitoek txarto begiratuko dizute... Horixe da, gauza
mordoa pilatzen dira tartean... (...) Bada, zer gertatzen da? Motxila kendu eta,
ale, akaba nazatela bertan...» EOB

Segurtasuna lehenestea: arriskua kudeatzea.

BAGZe dagokienez, indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek zerbitzuetara iristean
zer egoera duten kontuan hartuta, adierazi dute espazio segurua izan dela haien zat-
harrera- eta arreta-eremua. Aterpetxean edo harrera-programan sentitutako segurta-
sunaren gaineko pertzepzioa ere ona da. Gorago aipatu dugunez, indarkeriaren biktima
diren emakume ijitoek gehien baloratzen duten baliabideetako bat da, betiere etxebi-
zitza propio baterako trantsizio-irtenbide gisa. «Bai, seguru sentitu naiz... Aterpetxean
primeran, asko maite ninduten, zaharrena nintzelako... (...) Denek tratatzen ninduten
ondo» IB4.

Emakumeek aterpetxea edo harrera-baliabidea utzi behar dutenean sortzen dira se-
gurtasunaren plangintzari dagozkion zailtasunak, dela horretaz baliatzeko izan duten

³⁰ Azken baieztapen hori gainerako zerbitzuei ere aplikatu da.

denbora beren egoera aldatzen hasteko nahikoa izan ez delako, dela senideekin batera joateko beharra sentitzen dutelako. Seguru eta ondo tratatua sentitu arren, emakume horrek berak aterpetxea uztea erabaki zuen, gaixo zuen ahizpa zaintzeko, eta lehen-gusinare hiletara joateko. Behin kanpoan, ez itzultzea erabaki zuen. Arrazoiei buruz galdetu zaionean, emakumeak zera erantzun du:

«Zelatatzan nindutelako. Senarraren familiari ez zitzaion egoera gustatu. Gutxi behar dute bertatik botatzeko... Eta nora joango naiz ni, aldaka txarto dudala? Beldur handia nuen. Haien zenbakia oso ezkutatuta neukan eta ez nintzen auzartu (...) Ez zen jarraipenik izan. Nik ez nuen nahi izan, beldur nintzelako. Sem-alabak aurka nituen, eta ez nien ahizpei esan nahi, gaixorik zeudelako» IB4

Garrantzitsua da azpimarratzea segurtasunaren plangintzari dagokionez hautemandako oztoporik handiena salbu sentiaraziko dituen etxebizitza bat esleitzeko mekanismoa dela.

Komunikazio eraginkorra. Entzutea, ulertzea eta erantzutea. Informazioa eta forma.

BAGZetan bat datoz indarkeriaren biktima diren emakume guztiei behar bezala informatzeko eta aholkatzeko ahaleginak azpimarratzean, baita ijito-herrikoak direnei ere. «Hainbat bide ditugu, (...) informazioa komunitatean egon dadin saiatzeko gara, elkarrekin harreman estuaren bitartez (...). Auzoren batetik kasuren bat iristen zaigunean, informazioa helarazten saiatzeko gara, zeharka bada ere (komunikazio-bide informal bidez)» CSSB. Bizkaian eta Gipuzkoan, ijitoen erakundeekiko elkarriketa komunitateko esku-hartzearekin lotuta dago, baina Gipuzkoan behintzat oraindik ez da genero-indarkeriarekin inolako esperientziarik izan.

«Ijitoen erakundeekin hainbat kontutarako kontratu-programak ditugu, eta noizbait berezitasun kulturalen ondorioz zailtasunak dituzten zerbitzuko profesionalak laguntzeko programa bat abian jartzen ari dira. Zerbitzuek ijito-etniako pertsona horiengana jo ahal izatea da asmoa, bitartekari lana egin dezaten» CSSG

«Telefonoa hartu, elkartera deitu eta zera galdetzen zaie: "Aizu, zer gertatzen ari da familia honetan?"» CSSB

Ezaugarri horri lotutako giltzarrietako bat da. Beharrezkoa da emakumeek, zerbitzuak erabili behar izan aurretik ere, egiazko informazioa eta erreferentzia objektiboak izatea. Horretarako, emakume ijitoek onartzen duten kanal bat erabili behar da, eta horregatik da hain garrantzitsua ijitoen erakunde eta profesionalen arteko bitartekotza bermatzea biktimei arreta emateko prozesu osoan zehar: «Biktima gisa, nahiz eta inoiz ez naizen izan, bitartekari, hori bai, hori izan naiz, ez nuke hara joko (BAGZetara), ijitoen erakunde batera baizik, badakidalako ulertu egingo nautela, babestu, eta behar duan horretara bideratzen jakingo dutela» EE2.

Erakundeok diotenez, gizarte-langileen eta emakume ijitoen arteko elkarriketa gauzatu ahal izateko, funtsezkoa da konfiantza, errespetua eta elkarrekiko onarpenean oinarritutako lotura sortzea. Hori posible izan dadin, gure desberdintasun etnikoaren baliozkotzea eta onarpen instituzionala izan behar dira abiapuntu, horrek beste aldagai sozioekonomiko batzuetan dituen eraginak kontuan hartuta.

4.2.2 Polizia-zerbitzuak

Elkarriketatutako polizia-zerbitzuak –kasu honetan, Ertzaintza genero-indarkerian espezializatutako taldeetako kideak– etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimei arreta emateaz arduratzen dira, besteak beste, eta kasu bakoitzean arrisku-maila aztertu egiten dute, babes-neurriak ezarri eta biktimari bere eskubideei buruzko informazioa ematen diote. Era berean, aktiboki parte hartzen dute etxeko eta/edo genero-indarkeriaren ondoriozko arrisku-egoerak prebenitzeko jardueretan, betiere Herriarren Babesaren funtzio propioekin lotuta badaude.

Erabilgarritasuna. Kantitatea eta kalitatea, biktima guztientzat.

Beste zerbitzu batzuetan gertatzen denez, harrera- eta arreta-protokoloa berbera da genero-indarkeriaren biktima guztientzat, bereizketarik egin gabe. Lehenengo jarduketaren ondoren, beharrezkoa izanez gero, (i) gizarte-zerbitzuetara bideratzen da biktima: kasuaren kasuistika zehatza landu dezaten; edota (ii) EAEko hiru hiriburu-epaitegietan biktimei laguntzeko dauden zerbitzuetara bideratzen da. Hala badagokio, osasun-zerbitzuetara ere laguntzen zaie biktimei, normalean ospitaleko larrialdietara.

Orain arte esandakoaren ildotik, taldeek adierazi dute emakume ijito gutxi salatzen dutela, artatzen diren emakumeen kopuru osoarekin alderatuta. Poliziara jotzeari dago-kionez, auzokide edo hurbileko batek abisatu ohi du kalean edo etxebizitzan liskarren bat dagoela, eta horregatik hurbiltzen dira ingurura edo etxera; tratatu txarrak atzemanen gero, emakumea ertzain-etxera edo ospitaleko larrialdietara eramaten dute. Oso kasu gutxitan aurkezten dira emakume horiek zuzenean ertzain-etxean. Ondorioz, espedienteen proportzio oso handia ofizioz egin behar da. Hala eta guztiz ere, polizia-zerbitzuek adierazi dutenez, azken urteetan gora egin du genero-indarkeriaren ondorioz ertzain-etxera joatea erabakitzen duten emakume ijitoen kopuruak. Ijito-komunitatean ere antzeman da kasu horien gorakada:

«Bai, bai, familia nire alde dago (...) Orain asko aldatu dira gauzak, jada kontua ez da lehen bezala; orain, erabakita dutenean, salatu egiten dute askok. Lehen ez zen bat bera ere ikusten, baina orain 100etik 10 agian...» IB3

«Guk (*bideratzaileak*) ez dugu ondo ikusten (*salaketa*), baldin eta aurretik gutxienez aukera bat eman ez bazaigu. Horretarako baitago gure legea. Bi familiak hartu, eta egoera konpontzen saiatu behar da (...) Gure legeak ere errespetatu behar dira (...), jakinaraz diezagula, gatazka konpontzen saiatu ahal izateko behintzat.

Emakume ijito batzuek hori egiten dutela dagoeneko? Bai, jakina, denborarekin dena galtzen ari delako, adibidez, kulturak (ijitoa, zuriena, arabiarra...). Guk ona den guztia mantendu nahi dugu, uste dugu kasu honetan ona dela aukera bat ematea... Zer gertatzen da? Emakumeak aurrera egin eta salaketa jartzen badu, eta ijitoen legea errespetatzen ez badu, beste familia minduta senti daitekeela» EA

Zerbitzuan ibilbide luzeagoa duten agenteek, oro har, emakume ijitoetan «belaunaldi-aldaketa» bat antzeman dute, eta uste dute prestakuntza-maila handiagoarekin lotura duela horrek. Hala ere, gaineratu dute genero-indarkeriagatik joaten direnak maila sozioekonomiko oso baxua izan ohi dutela. Instantzia horietan bertan nabarmentzen da, gainera, kolektiboaren barruan artatzen diren kasuen artean, ez dagoela atestaturik edo «salaketa arinik» (indarkeria psikologikoagatik, ekonomikoagatik eta abarrengatik egindako esku-hartzei dagokienez). Kasu gehienetan indarkeria fisikoa egon da.

Zerbitzura iristeko erabilgarritasun efektiboari dagokionez, funtsezkoa da kontuan hartzea polizia-zerbitzuak ijito-herriaren indar errepresioak izan direla historikoki. Nahiz eta zerbitzuak azpimarratzen duen talde espezializatuarekin ezartzen den harremana ez dela beste kasuistika batzuen bidez ezar daitekeenaren berdina, ijito-komunitateak, oro har, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek bereziki, ez dute polizia-instantzietara jotzea erabakitzen, muturreko premia ez bada (hortik dator, hein handi batean, iristen diren kasuen «larritasunari» buruzko espezifikotasuna). «Ez da ohikoena, ez garelako haiekin fidatzen, ez gara seguru sentitzen. Poliziarengana jotzea erabakitzen duten emakumeek beste irtenbiderik ikusten ez dutelako egiten dute» EOB.

Erabilgarritasun materialari dagokionez, emakumeek adierazi dute ez dutela eragozpenik izan ertzain-etxera joateko; behin erabakia hartuta, deitzeko edo bertaratzeko une egokia aurkitzea izan dela egin beharreko guztia.

Moldagarritasuna: indarkeriaren ondorio bereziak identifikatzea.

Polizia-zerbitzuek adierazi dutenez, genero-indarkeriari eta kulturartekotasunari buruzko prestakuntza jaso arren, ezagutza txikia edo oso txikia dute indarkeriak ijito-komunitatean dituen ondorio bereziei buruz. Esperientziaren eta biktimekiko harremanaren ondorio da ezagutzen dutena. Agente batzuek aitortu dute emakumeoi bereziki kostatzen zaiela «irekitzea». Hala ere, biktimen profilaren gaineko hainbat pertzepzio orokor aipatzen dituzte:

- Kalteberatasun handiagoa (gaixotasuna, bakardadea, menpekotasun ekonomiko edo emozionala direla eta).
- Jarraipena egiteko oztopo handiagoak. Oro har, beste emakume talde batzuek baino gutxiago laguntzen dute.
- Tratu txarren egileari ez ezik, beldurra diete erasotzailearen familiak egin dit-

zakeen errepresaliei ere.

- Etxebizitza da interes nagusia, beste biktima batzuekin alderatuta.

Hainbat agentek azpimarratu dute zailtasunak dituztela tratu txarren biktima den emakume ijito baten espedientearen jarraipena egiteko, emakume horiek babes-neurri eta -baliabideak «gaizki» erabiltzen dituztelako. Ez diote telefonoari erantzuten, ez dute deia itzultzen (desagertutako «bortxa» telefonori dagokionez), edo uko egiten diote polizia-eskoltari. Hala ere, polizia-zerbitzueta kideek diote Ertzaintzaren arreta-eredua egokitu egiten dela genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen beharretara. Argudio nagusia da arreta eredu integral, pertsonalizatu eta gainerako zerbitzu juridiko eta sozialekin koordinatuaren araberakoa dela. Ez dago hausnarketarik aztertzeko zergatik emakumeek ez dituzten erabiltzen beren segurtasuna babesteko eskaintzen zaizkien baliabideak eta egiturak. Hori dela eta, gai horri buruzko hausnarketa sistematikoa eta autokritika egin beharko litzateke.

Elkarriketatutako emakumezko agente batzuek diotenez, polizia gertu ibiltzea nahi ez izateko arrazoieta bat da haien senideak agian delitugileak direla. Ertzain horiek esandakoak ez ditu aintzat hartzen «belaunaldiz gaindiko trauma» delakoa eta indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen kultura-testuingurua, eta, gainera, gizarte maioritarioan egiturazkoa den ijitoen aurkako gorrotoaren adibide argia da.

Emakume ijitoen berezitasun kulturalari dagokionez, garrantzitsua da adieraztea zein bortitza izan daitekeen senarra edo senide bat ez den gizon batek lagunduta joatea. Egoera hori, zeina alderantziz ere gertatzen baita (gizon ijito bat hurbileko senidea ez den emakume ijito batekin joatea edo harengana hurbiltzea) ez da ijitoen ohitura. «Nik badut senargai bat, eta lagun talde bat hor... Zertara noa ni hara? Zerbait esan behar badiet, bai; baina ez naiz hor geratuko haiekin iritzia solasean...» «Zaila da gizon bat emakume talde batengana hurbiltzea...» ETEG. Nolanahi ere, ijitoen erakundeetako batetik ohartarazi dutenez, «Emakumezkoa izan zein kaleko arropaz jantzita egon, nik ez nuke polizia bat ekarriko etxera, ez nintzatekeelako seguru sentituko» EOB.

Egokitasuna: Biktimen behar eta ikuspegiekiko sentikortasuna.

Polizia-zerbitzuek uste dute langileak gai direla genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoak artatzeko, genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza jasotzen dutelako Arkauteko Polizia Akademian edo espezializazio- eta sustapen-ikastaroetan. Gainera, zerbitzuaren arduradun nagusiak goi-mailako prestakuntza espezializatua du arlo horretan. Hala eta guztiz ere, hobetzeko aukera gisa, ijito-herriari buruzko prestakuntza espezifiko jasotzea proposatzen da.

Erabakiak hartzeko orduan emakumeen autonomia errespetatzeari dagokionez, elkarriketatutako emakumeek adierazi dute autonomia hori sentitu egin dutela, baina elkar-teen onespeneraren kontua zehazteko beharra aipatu dute berriro³¹. Azkenik, polizia-zer-

31 Ikusi 4.2.1 Indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntzeko gizarte-zerbitzuak: Egokitasuna.

bitzuek EBA (*Etxekoen eta Emakumeen Babesa*) programa jarri dute abian, zeinaren helburua baita bigarren mailako biktimizazioa murriztea. Horretarako, Ertzaintzaren eta beste polizia-kidego batzuen arteko koordinazioa hobetu nahi da, edo biktimari arreta emateko prozesu osoan jarraipen-agente bakarra ezarri. Nolanahi ere, ezin izan dugu inolako ondoriorik atera programak emakume ijitoen arretan izan ditzakeen onura espezifikoak buruz.

Segurtasuna lehenestea: arriskua kudeatzea.

Segurtasunari dagokionez, emakume ijitoen pertzepzioa konplexua da; izan ere, batetik, babesa behar dute –batez ere tratu txarren egilearen aurrean, baina baita haren familiaren aurrean ere–, baina bestetik, bestela ongietorriak izango ez liratekeenekin harremanetan egon behar dute. Polizia-zerbitzuetako kideek uste dute emakumeak seguru sentitu beharko liratekeela ertzain-etxean artatzen dituzten bitartean edo beste zerbitzu eta erakunde batzuetara eramaten dituztenean, espazioa erreserbatua eta pribatua delako eta ez dutelako inolako harremanik ustezko erasotzailearekin.

Segurtasunari dagokionez, biktimetako batek azaldu du «sistema gogorra dela, gogorra izan behar duelako. Baina gauza bat ere badiot: gizonen zainketa indartu beharko lukete (*tratu txarrak ematen dituztenei erreferentzia eginez*), eta ez gurea. Geu gara biktimak, ez gara geu min egiten ari garenak» IB1. Biktima diren emakume ijitoek gehien baloratzen duten segurtasun-neurria urruntze-agindua da. Eta paradoxikoki, salaketa poliziala jartzen dutenek bakarrik lortzen dute hori.

Segurtasunaren plangintzari dagokionez, polizia-zerbitzuek azpimarratu dute jardueraprotokolo bera aplikatzen zaiela emakume guztiei. Haien esanetan, protokolo horrek kontuan hartuko lituzke genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoen berezitasun kulturalak, arriskuen balorazio pertsonalizatuaren bidez egiten baita. Balorazio horretan oinarrituta, arrisku-maila desberdinak zehazten dira eta babes-neurriak aplikatzen dira (errutinen gaineko prebentzio-jarduerak, etxea, autobabeseko prestakuntza, ausazko deiak, aldizkako elkarrizketak, 24 orduko eskolta, *kontrazaintza*, GPS eskumuturrekoa eskatzea, etab.).

Emakumezko ertzainetako bati galdetu zaio ea arriskuen balorazio pertsonalizatu horretan emakume ijitoen berezitasun kulturei lotutako itemik edo iritzirik dagoen. Hau da, indarkeriak kolektibo horrengan dituen ondorio bereziak aitortzen diren kasuaren arrisku-maila eta segurtasun-hedapena zehazteko orduan. Erantzun du horrekin antza handiena izan dezakeen item bakarra atzerriko jatorriarena dela, baina agenteak berak aitortzen duenez, horrek ez du zentzurik, ijito-herria gutxiengo nazional bat dela kontuan hartuta.

Komunikazio eraginkorra: entzutea, ulertzea eta erantzutea. Informazioa eta forma.

Ertzainek adierazi dutenez, genero-indarkeriaren biktima ijitoek zerbitzu horren eta beste batzuen ezaugarriak eta baldintzei buruzko informazioa eta aholkularitza nahikoa

izatea bermatzen da. Eskubideei buruzko informazioa larrialdiko deiari erantzuten dioten herritarren babeserako kideek ematen dute lehenik, eta, ondoren, ertzain-etxean, beren eskubideen berri ematen diete, idatziz, langile espezializatuak. Nahi izanez gero, abokatuak ere eman diezaieke informazioa ertzain-etxean.

Beren inguruabar espezifikoan inguruko ulermenari dagokionez, elkarrizketen bidez pertzepzio oso orokorrak geratu dira agerian, batez ere salatzeke zailtasunei dagokienez: «Uste dut, ohartu zirela ijitoa nintzenez asko kostatu zitzaidala egiten ari nintzena egitea» IB3. Polizia-zerbitzuetako kideek nabarmendu dutenez, arazo nagusia jasotzen duten informazio-kantitatea da, baita haien eskubideak eta salatzeke edo babes-agindua eskatzeko aukerak ondo ulertzeke gai ez izatea une horretan. Hobetu beharreko alderdien artean, agente batek adierazi du nahiago lukeela ijito-komunitatearen barruan zerbitzuari buruzko informazio gehiago jasoko balitz; horrek pentsarazten digu poliziaren esku-hartzea jaso ohi duten eremuez bestelako espazioak sortu behar direla, errealitateak hurbiltzeke, elkarrizketa sustatzeko eta elkar ezagutzeko.

4.2.3 Osasun-zerbitzuak

Osakidetzako osasun-arloko profesionalek genero-indarkeriaren aurrean nola jardun jakiteko jarduketa-gidan (2019) jasota dagoenez, indarkeria pairatu duten emakumeak osasun-zerbitzuetan artatzen dira normalean, eta litekeena da sistema sanitarioa izatea emakume horien lehen aukera. Halakoxea da indarkeriaren biktima diren emakume ijito askoren kasua ere. BAGZetan eta polizia-zerbitzuetan bezala, identifikatutako osasun-zerbitzuetan ere (EAEko hiru hiriburuak ospitaleetako larrialdi zerbitzuak) jarduketa-protokolo orokor bat aplikatzen da iristen diren genero-indarkeriako kasu guztietarako. Are gehiago, elkarrizketatutako zerbitzuetako bitan gutxienez (Bizkaian eta Gipuzkoan) osasungintzako profesionalek *ad hoc* sortutako protokolo espezifiko bat dago. Lehen mailako prebentzioan kalteberatasun bereziko egoerak³² identifikatzeko orduan, hainbat kasuistika agertzen dira, baina horien artean ez dago jasota ijitoen berezitasun etniko-kulturala.

Erabilgarritasuna. Kantitatea eta kalitatea, biktima guztientzat.

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoek ez dute ezer aipagarririk hautematen osasun-zerbitzuetara iristeko eta horiek erabiltzeke aukerei dagokienez. Zerbitzuon aldetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, oro har, zerbitzura iristeko hiru modu identifikatu dira: (i) beren ekimen eta borondatez iritsi direnak, tartean, lesioak tratatu txarren ondorio direnik onartzen ez duten emakumeen ehuneko handi bat; (ii) atestatua egin ondoren polizia-langileek lagundutako emakumeak; (iii) anbulatorio-tik etorritakoak. Kasu bat detektatzen denean, oro har, polizia-agintariei jakinarazten zaie.

³² Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida (2019), Osakidetza-rena.

Indarkeria dela-eta artatu dituzten emakume ijitoen kasuan, horietako gehienak (i) poliziak bideratuta eta lagunduta joaten dira: «Jada zerbitzu bereziekin zetozen, eta dena oso bideratuta zegoen. Protokoloa oso desberdina da kasu baten biktima dela sumatuz gero»; eta (ii) beren ekimen eta borondatez iristen dira, normalean, senideek lagunduta. Kasu horretan, oso gutxitan onartzen dute lesioak tratatu txarren ondorio direnik. Zerbitzutik, gainera, adierazi dute emakume horiek figura maskulino batek (tratu txarrak eman dizkienak) «oso markatuta» datozelako «sentsazio subjektiboa» dutela. Lesioen arrazoiei buruz galdetzen saiatzen direnean, ihesbideak edo aitzakiak ematen dituzte, eta «ez dago egia lortzeko modurik artatzen ditugun emakume ijitoekin, ezpada emakumea etortzen dela lesioak lesioak genero-indarkeriagatik direla esatera; salatu egingo dut; baina beste gauza batzuegatik artatzea da» CSG.

Elkarrizketatutako Bizkaiko larrialdi-zerbitzuetan, biktimek onartzen badute lesioak tratatu txarren ondorio direla, ospitaleko informazio-zerbitzuak hartzen du bere gain emakumeari lagun egiteko eta aholkularitza emateko ardura³³: «Ospitaleko langileak arduratzen dira emakumeari laguntzeaz eta datuak hartzeaz. Itxarongelan beste paziente batzuekin batera egon ez daitezen ahalegintzen da; izan ere, beste gela batzuk daude horretarako gaituta, eta bertan egoten uzten zaie, haiek artatu eta ikusten ditugun arte (...) Lesioen partea egiten da, bi atal dituena: bata, genero-indarkeriaren atal espezifikoa, eta bestea, orokorra, informazio-zerbitzura bideratzen dena, horrek Ertzaintzari dei diezaion eta haiekin itxaron dezan...» CSB.

Moldagarritasuna: indarkeriaren ondorio bereziak identifikatzea.

Biktimak osasun-zerbitzuetatik igarotzen direnean, artatu eta zaindu egiten dira, baita lagundu ere. Batzuentzat, aurrerago azalduko dugunez, beren egoera iraultzeko aukera bihur daiteke une hori.

Genero-indarkeriak ijito-komunitatean dituen ondorio berezien inguruan duten ezagutza-mailari dagokionez, profesionalek era askotara erantzuten dute. Batzuk usteetan edo lan-bizipenetan oinarritzen dira, ezagutza dezente handia dutela esateko: «Bizitza osoan elkarrekin bizi izan gara kultura horrekin, eta badakigu zer-nolakoak diren. Baietz uste dut, ezagutza handia dugula» CSG. Hala ere, ijito-komunitatearen barruan kasu horiek nola kudeatzen diren galdetu zaio, eta adierazi du ez dakiela zein diren mekanismo horiek eta ez zekiela bideratzaile horiek zeudenik ere. Elkarrizketatutako beste emakumezko profesional batek adierazi du harreman estuagoa izan duela komunitatearekin (lanekoa eta bizikidetzakoa): «Hurbiletik bizi izan dut kultura hori (...); emakumeek ontzat ematen dute (*indarkeria*) eta kito» CSA.

Zerbitzuaren egokitasunari dagokionez, protokolo orokorretik harago, gehiengoak onartzen du ez dagoela inolako zehaztapenik biktima diren emakume ijitoei dagokienez: «Berdin tratatzen ditugu biktima guztiak (...) Langileak oso kontzientziatuta daude genero-indarkeriarekin, baina ez dago inolako berezitasunik ijito-etniari dagokienez. Ez, ez gara egokitzen» CSG. Emakumea osasungintzako langileei laguntza

³³ Ez dakigu beste ospitale batzuetako informazio-zerbitzuek zeregin horiek berak ala beste batzuk esleitura dituzten.

eskatzeko prest dagoenean, «arrakala» txiki bat egon daiteke, tratu txarren emalearen presentziak³⁴ baldintzatuta dagoen emakume bat artatzeko aukera ematen duena; horretarako, emakumearekin bakarka elkarriketa bat egiteko aukera jaso behar da protokoloan (Gipuzkoan elkarriketatutako zerbitzuaren kasuan bezala). Hala ere, zerbitzuaren inguruabar espezifikoek zaildu egiten dute arreta arin eta erraz emateko aukera. «Emakume bat traumatismo batekin badator eta ez badu esaten genero-indarkeriagatik dela, prozedura jakin batzuk ezartzen dira medikuak egoera azter dezan. Batez ere, emakumearekin bakarka elkarriketa bat egiten saiatzea» CSG

Egokitasuna: biktimen behar eta ikuspegiekiko sentikortasuna.

Osasun-zerbitzuek ez diete ijitoen kulturaren inguruko prestakuntza espezifikorik eskaintzen langileei, bai, ordea, genero-indarkeriaren ingurukoa. Indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoak eta osasun-zerbitzuak bat datoz erabakiak hartzeko autonomia errespetatzen dela esatean. Azken horiek adibide gisa jartzen dute lesioen parteak biktimaren adostasuna izan behar duela beti³⁵.

Bigarren mailako biktimizazio moduei dagokienez, emakumezko profesionaletako batek aitortu du adierazi ez den indarkeriaren aurrean, askotan, ezer ez egitea hobesten dela, edo protokoloarekin ez jarraitzea, biktima ijitoa delako: «Guretzat oso zaila da, beste gai batzuk ere sartzan baitira tartean: *istilua sortuko dugu, oldarkor jarriko da*. Langileak beldur ere izaten dira, eta gatazka horretan sartzeak beldurra ematen du... Nik neuk aitortzen dut; ez dugu egiten beste etnia batzuekin egiten dugun guztia» CSG. Tratu diskriminatzaile bigarren mailako biktimizazioa eragiten du. Hala eta guztiz ere, emakume ijito askok ondo dakite zer eginkizun izan dezaketen osasungintzako profesionalak: ofizioz jarduteko gai direla, lesioen parte sortzeko aukera dutela edo zerbitzu judizialak eta polizialak aktiba ditzaketela. Prozedura osasungintzako profesionalak berak hasteak salbuetsi egiten ditu emakume ijitoak ardura izatetik, edo ingurukoek salaketa jarri izana leporatetik.

«Bi aldiz joan nintzen kontsultategira. Ubeldurak nituen beso batean, eta hemen alde batean ere bai... “Zer gertatu zaizu?” “Erori egin naiz”. “Bada, kontuz ibili, neska, ez erori...” Baina, noski, nik begira ziezadan nahi nuen, begiradaz ulertu nintzala... Barrutik oihuka antzera nengoen, haiek salatu zezaten, eta ez nik» IB1

Segurtasuna lehenestea: arriskua kudeatzea.

Indarkeriaren biktima diren elkarriketatutako emakume ijitoek diote espazioa segurua iruditzen zaiela. Oro har³⁶, abusu-egoeren aurrean emakume ijitoek konfiantza izaten dute

³⁴ Ijitoa ez den biktima bati ere gerta dakioke hori, baina, dirudienez, maiz gertatzen da larrialdi-zerbitzuetara iristen diren eta indarkeriaren biktima diren emakume ijito bakanen artean.

³⁵ Hala ere, Osakidetza egindako gidaren arabera, emakumeak indarkeria-gertakari larri bat pairatzeko arrisku handia eta hurbilekoa dagoela uste denean, jakinarazpen judiziala egin behar da, nahiz eta emakumea bera ados egon ez.

³⁶ *Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida (2019)*, Osakidetza-arena.

osasun-profesionalengan.

Bestalde, elkarrizketatutako osasun-zerbitzu guztiek aplikatzen dituzte Osakidetza-aren jarduketa-gidan jasotako segurtasun-neurriak; hau da, genero-indarkeriaren biktimak leku bereizi eta diskretu batera eramatearekin (ez bakarrik segurtasun-neurri gisa, baita biktimaren egoera emozionalari eta inguruabar partikularrei egoki erantzuteko ere). Sarrera kontrolatuta dago, eta biktimari galdetzen zaio ospitalera bisitan edo bere bila hurbildu den pertsona ikusi nahi duen edo ez. Zeregin hori, normalean, larrialdietako osasungintzako langileek edo segurtasun-zerbitzuek egiten dute, eta ez da ikusten protokolo sanitarioak emakume ijitoen berezitasunetara egokitzeko biderik. «Leku al-dendu batera eramaten dira emakumeak, box batera, edo ahal den lekura, larrialdietako zerbitzuan dena kaotiko samarra izan baitaiteke (...). Ertzainekin batera leku al-dendu batera eramaten dute emakumea (...) eta berak erabakitzen du nork egiten dion bisita, askotan bestearen (*erasotzailearen*) senideak ere iristen baitira» CSA. Aurrez adierazi dugun bezala, zerbitzu horietara jotzen duten emakume ijitoen berezitasunetako bat da senide askok lagunduta etortzen direla: «...bere zein gizonaren senideekin. Noski, hor dago arazoa, ez dakizula nor den nor. Orain COVID-19a dela-eta ezin da inor sartu, baina lehen...» CSA.

Osasun-zerbitzuetako kideek jakin badakite arriskutsua izan daitekeela sortutako dokumentazioa eta parteak erasotzailearen eskuetara iristea. Prozeduran argi eta garbi jasota dago hori: osasungintzako langileek jasota utzi behar dute zer ikusi duten, eta antzeman daitekeen arriskuaren balorazioa egin. Prozesuaren denborak, aukerak eta elementu subjektiboak konplexuak eta aldakorak dira. Gorago oharatzen dugunez, emakumeak ijito-etniakoak izateak, kasu batzuetan, langileek prozedurari ez heltzea eragiten du. Beste batzuetan, *ad hoc* estrategiak erabiltzen dituzte jarduketa aurrera eramateko: «Hurrengo urratsa polizia aktibatzea izango litzateke... (...) Jakina, egoera batzuk konplikatu samarrak dira (*adibidez, erasotzaileak lagunduta etorri bada*), eta, orduan, Ertzaintzarekin hitz egin dezakezu erradiografia bat egiten duzun bitartean, edo distraitu edo entretenitu egin dezakezu gizona...» CSG

Komunikazio eraginkorra: entzutea, ulertzea eta erantzutea. Informazioa eta forma.

Zerbitzu guztiek adierazi dute larrialdi-zerbitzuek zurrunbiloa berezko dutela, eta horrek edozein informazio- eta komunikazio-prozesu zailtzen duela. Gipuzkoako osasun-zerbitzuetako kideek adierazi dute: «Artatze guztietan pazienteei informazioa emateak huts egiten digu (...) Guk hemen egiten dugu lan, eta badakigu nola funtzionatzen duen denak. Baina, larrialdiaren zurrunbiloan, asko kostatzen zaigu gauzak ondo azaltzea» CSG. Araban, biktimei informaziorik ez zaiela ematen jakinarazi dute: «Ez dakit ba ote dakiten parte bat egin dezakegula...» CSA, zehazki emakume ijitoei erreferentzia eginga. Era berean, emakumei informazioa emateko eta haiekin hitz egiteko zailtasunak daudela azpimarratzen dute, batik bat senideekin datozenean eta tratu txarren emalea haien artean ez dagoela ziur ez dakitenean. Horrelakoetan, biktimek zein profesionalek *ad hoc* estrategiak erabili behar dituzte komunikazio- eta laguntza-kanal informalak ezarri ahal izateko.

«Erizainak bazekien zerbait gertatzen zitzaidala, asko begiratzen niolako... Baina nire semea ate atzean zegoen, adi. Orduan, berarekin bakarka hitz egin behar nuela esan nion... Erizainak esan zidan injekzio bat jarriko zidala, aztoratuta nengoelako, eta atea itxi zuen. Eta hor pasatu zidan telefonoa deitzeko...» IB4

Hemen amaitzen da biktima diren emakume ijitoek genero-indarkeriaren eta BFAZen arretaren inguruan duten pertzepzioari buruzko emaitzen azterketari buruzko atala. Kapitulu luze eta konplexua da, eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume ijitoen errealitatea ulertzeko baliagarria izatea da helburua, baita BFAZen aldetik jasotzen duten arreta hobetzeko gako batzuk ematea ere. Jarraian, ondorioen kapituluan, gako horiek laburbilduta daude eta zenbait gomendio orokor egin dira.

Ezin dira aztertu genero-indarkeriak ijito-komunitatearen barruan dituen pertzepzio eta ondorio bereziak, gizarte maioritarioan den antiijitotasuna aintzat hartu gabe. Gi-

05

Ondorioak

zartea gehienbat antiijittoa den bitartean, emakume ijitoak baldintzatuta izango ditugu gure eragin-, autonomia- eta bizi-aukerak. Horrela den bitartean, eremu arrotz eta ez-segurutzat joko ditugu espazio, erakunde eta botere publikoak. Hala ere, badaude BFAZen jardunak egokitzea lortzeko bideak, gure komunitatean genero-indarkeriaren ondorio bereiziak behar bezala aitortuak eta artatuak izan daitezen.

Ondorioei eskainitako kapitulu honetan, datuen analisiak eman dituen ideia nagusiak berreskuratu nahi ditugu, eta helburu hori lortzen lagun dezaketen gakoetako batzuk eman.

Emakume ijitoak eta genero-indarkeria

Gure azterketaren hasieran deskribatu dugunez, azterlan honetan parte hartu duten emakume ijitoek genero-indarkeriaren inguruan duten pertzepzioa bat dator jendarte osoan dagoen ikuspegi murriztailearekin, historikoki hartaz elikatu baita. Hala, gehienek argi eta garbi identifikatzen dituzte eraso fisikoak eta hitzezko mehatxu larriak (iraintzea, umiliatzea, biraoak), eta onartezintzat jotzen dituzte; eta handiagoa da, ordea, indarkeriaren biktima izan den emakumearen kontrolarekin eta menperatzearekin lotutako bestelako adierazpenen onarpen-maila.

Generoak indarkeriaren balizko xede izateko egoeran kokatzen ditu emakumeak –gizarte maioritarioak erreproduzitzen duen sistema heteropatriarkal berean kokatzen direlako–, baina arrazak balizko bi desberdintasun-egoera gehitzen dizkie gutxienez, eta horietan aipatutako bi desberdintasun-ardatzen (generoa eta arraza) arteko erlazioak zapalkuntza arindu edo areagotu dezake. Lehenengoan, lotura aringarria da: ijito-he-
rria historikoki talde zapaldua delako konstruktua-
ren eraginez, auto-antolamendurako eta babeserako estrategiak egituratzea ekarri du, justizia hegemonikoaz bestelako alternatibak eskainita. Horrek aukera ematen die taldeko kide direnei beren arteko

gatazkak taldearen barnean konpontzeko eta behar duten babesa edo segurtasuna bertan lortzeko. Beren komunitatearen barruan tratatu txarren biktimatzat hartzen diren emakume ijitoentzat, ijitoen legeak hainbat manu ezartzen ditu haien segurtasuna, ongizate materiala eta sinbolikoa bermatzeko. Bigarrenean, harremana areagotzekoa da: ijitoen legeari dagozkion mugen ondorioz (tradizioa eta legea errespetatzen ez diren kasuak, *indarkeriaren zirkulua* deiturikoaren onarpenik eza edo indarkeria psikologikoa identifikatzeko eta frogatzeko zailtasunak), hainbat emakume komunitatearen babesik gabe geratzen dira eta, gizarte maioritarioak zapaldu eta baztertutako talde etniko bateko kide direnez, beren kalteberatasuna areagotu egiten da (komunitate horretan ere pobrezia-indize altuak eta bazterkeria-indize handiak daudela kontuan hartuta).

Erabilgarritasuna

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijito gehienentzat, BFAZak ez dira tratatu txarren egoerari amaiera emateko lehen aukera; aitzitik, ijitoen tradizioak eta legeak ezartzen dituzten bideak aukeratzen dituzte. Bitartekotza hori arrakastatsua bada, emakumeek ez dute BFAZetara jo beharrik izango. Horregatik, arreta emandako indarkeria-kasu guztietatik, ehuneko oso txiki bat da haiena. Goian azaldutakoaz gain, hauek dira gertakari horretan esku hartzen duten faktore nagusiak:

- Emakume ijitoek uste dute BFAZek ez diotela bere berezitasun etniko eta kulturaletara egokitutako erantzunik emango.
- Oro har, BFAZek eta, bereziki, polizia-zerbitzuek mesfidantza eragiten diete.
- Erasotzailearengandik edo haren senideengandik jaso ditzaketen errepresalien beldur dira, aurretik ijitoen bitartekaritzarik egon gabe salaketa jartzea erabakitzen badute.
- BFAZek bera eta bere familia fiskalizatuko dituzten beldur dira.

BFAZetara iristen diren genero-indarkeriako kasu gehienetan, ijito-komunitateak ez du esku-hartzerik izan edo indarkeriaren biktima den emakumeak galdua du familiaren eta komunitatearen babesa –hein handi batean, ijito-komunitateak «indarkeriaren zirkulua» deiturikoa onartzen ez duelako–. Horrek indarkeriaren irudi gaindimentsionatua eta estereotipatua sortzen du ijitoen kulturean. Emakume ijitoen berezitasun kulturei buruzko ezjakintasunagatik mantendu eta errepikatu egiten da irudi hori, emakume ijitoen deskribapen homogeneizatzaile eta esentzializatzailea elikatuta. Pertzepzio hori eta ezaugarri espezifikoak ematea bera antiijitotasunaren beste adierazpen bat dira.

Moldagarritasuna

Ikerketan parte hartu duten EAEko emakume ijitoek uste dute BFAZak gai direla genero-indarkeriaren biktima izateagatik dituzten premiei modu egokitan erantzuteko; hala eta guztiz ere, ez dute laguntza-esparrurik modu egokian baliozkotu eta artatzen dituenik indarkeriak ijito-komunitatearen barruan dituen ondorio desberdinekin lotu-

tako premia espezifikoa. Beharrian honako hauei lotuta agertzen dira batez ere:

- Kalteberatasun sozial eta kultural handiagoa, gizarte maioritarioan nagusi den antiijitotasuna dela eta.
- Harrera- eta etxebizitza-baliabideak esleitzeko prozesua, eta horien kokapena eta funtzionamendua (deserrotze-egoera saihesteko eta haien behar espezifikoetara egokitzeko).
- Lan- eta etxebizitza-merkatura sartzeko pairatzen duten diskriminazio espezifikoa.
- Polizia-salaketa jartzeko, biktimaren egiaztageria lortzeko eta zerbitzu zein laguntza guztiak eskuratzeko dituzten zailtasunak arrazoi kulturalak direla-eta.
- Arreta psikologikoa eta zerbitzuen jarraipena kulturarteko ikuspegitik.
- BFAZen eta ijitoen erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren trinkoa, eta ez gatazkaren aurrean bakarrik.
- Biktimen epe luzerako laguntza, ijito-figura baten edo gaikuntza espezifikoa duten pertsonen bidez, arreta hobetzeko eta denbora luzeagoan mantentzeko helburuz.

Indarkeriaren ondorio bereziak modu eraginkorrean aitortzeko, biktimen beharrianei eman beharreko erantzuna egokitu egin behar da. Hala ere, ez da neurri edo protokolo espezifikorik aplikatzen ari genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoen premia espezifikoa modu egokitan aitortzeko eta artatzeko, eta haien berezitasun etniko eta kulturala kontuan hartzeko. Asistentzia-ekintza egokitzea ezin da zerbitzuetako langileen sentikortasunaren, gogoaren edo protokoloen aplikazio-malgutasunaren araberakoa izan; horregatik, erakundeek arau-esparruan aldaketak egitearen aldeko apustua egin dute, neurri espezifikoa ezartzeko.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, «tratu-berdintasuna» eta «diskriminaziorik gabeko tratua» parekatzeari utzi behar zaio. Bereizketarik ez egitea edo dauden baliabideak modu gehigarrian eta egokitu gabe erabiltzen saiatzea ez da ikuspegi intersektionala aplikatzea, eta bigarren mailako biktimizazio modu desberdinak eragin ditzake. Alde horretatik, tratu-berdintasunak ezin du zerbitzuen ekitaterik eta egokitasunik eza justifikatzen jarraitu.

Egokitasuna

Bi kulturen artean mendeetako bizikidetzaren izan den arren, ijito-herriaren berezitasun etniko eta kulturalen zein historiaren inguruko ezjakintasun handia dago gizarte maioritarioan oro har, eta BFAZetan bereziki; halaber, ez da behar beste ezagutzen zer-nolako eragina duten berezitasun horiek erakundeekiko harreman eta elkarriketaren (aurretik,

bitartean zein eta ondoren). Hala ere, BFAZen erantzuna egokitzeke gaitasuna baldintzatuta dago, ez soilik indarkeriaren ondorio bereiziak eragiten dituzten kode kulturalen inguruan dagoen ezagutza-mailagatik, baita arau- eta asistentzia-esparruak eskaintzen dituen aukerengatik ere. Hala, baliabiderik ez izateak (informazioa, gaikuntza, protokoloak edo neurri espezifikoak, komunikazio-kanal eraginkorrak) bigarren mailako biktimizazioa eragiten die emakume ijitoei.

Ijitoen erakundeek zerbitzuetako langileen prestakuntzaren alde egiten dute, baita emakume ijitoen berezitasunak kontuan hartuko dituzten genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko azterlanak, ikerketak eta kanpainak garatzearen alde ere. Indarkeriaren ondorioak prebenitzeko eta arintzeko elementu garrantzitsuenetako batzuk dira emakume eta neska ijitoak ahalduentzeko programak. Esperientzia horren bidez, emakumeek eta neskatoek oinarri sendoagoak garatu ahal izango dituzte tratatu txarren balizko egoerei aurre egiteko orduan. Azkenik, garrantzitsua da ikastetxeetan eta hezkuntza ez-formalean ere jardutea, hezkidetza-planen bidez, indarkeria-egoerak prebenitzeko eta arazo horren inguruan sentsibilizatzeko, betiere kulturarteko eta arrazakeriaren aurkako ikuspegian oinarrituta.

Segurtasuna lehenestea

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek ez dute uste BFAZak, oro har, eta polizia-zerbitzuak bereziki, arriskuaren balorazio eraginkorra egiten ari direnik, hau da, emakume ijitoen inguruko inguruabar kulturalak eta kolektiboak berariaz kontuan hartzen ari direnik. Balorazio hori egiteko orduan, genero-indarkeriaren biktima den emakumezko ez-ijitoekin partekatzen dituzten alderdiak kontuan hartzen dira. Gai hori honako alderdi hauetan antzematen da nagusiki:

- Poliziaren arrisku pertsonalizatuaren balorazioan item espezifikorik ez egotea eta segurtasun-neurriak emakume ijitoen berezitasun kulturaletara ez egokitzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoei etxebizitza esleitzeko irizpideak ez egokitzea.

Emakume ijito bakoitzaren egoera indibidualaren arrisku espezifikoak eraginkortasunez balioesteko eta ebaluatzeko, funtsezkoa da (i) ijito-herriaren historia, kultura eta tradizioak ezagutzea/aitortzea. Horretarako, baliagarria izan daiteke, berriz ere, BFAZetako langileak trebatzea eta sentsibilizatzea indarkeriak gure komunitatean dituen ondorio berezien inguruan; (ii) ijitoen erakundeekin komunikazio-, lankidetzak eta koordinazio-bide egonkorak ezartzea; eta (iii) emakume ijitoen berezitasun kulturei lotutako tresna, protokolo eta/edo itemak egokitzea.

Komunikazioa

Komunikazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da BFAZetako langileek eta genero-indarkeriaren biktima diren emakume ijitoek elkar ezagutzea/aitortzea. Horretarako,

honako hau behar da batez ere:

- Indarkeriak ijito-komunitatearen barruan dituen ezaugarri eta ondorio bereziak ezagutzeko gai izatea
- Ijito-komunitatearen eta BFAZetako langileen artean komunikazio-bide egonkorak sortzea, «belaunaldiz gairik gabeko traumaren» ondorioak arintzeko eta mesfidantza murrizteko, eta harreman bat sortzen denean konfiantzazko eta errespetuzko lotura bat sortzeko.

Baldintza horiek betetzen ez diren bitartean, informazioaren transmisioa egin egingo da, baina ez da «komunikazio eraginkorra» izango.

Horretarako, funtsezkoa da erakundeen arteko harremanetan eta komunikazioan alde aurretik lan egitea, hau da, emakumeak zerbitzuekin harremanetan jartzeko beharra izan aurretik. Elkarrekiko ezagutza sustatuko duten guneak sortzeaz gain, erakundeek emakume ijitoei zuzendutako hedapen-kanpainak egitearen alde egiten dute, emakumeon babeserako baliabide instituzionalak –haien berezitasun kulturalera egokitu ondoren– eta eskubideak ikusarazteko.

Bibliografia

Agüero, Silvia (2021/12/15): «Activista gitana feminista defiende a los machos gitanos», *Pikara Magazine* [Eskuragarri hemen: <https://www.pikaramagazine.com/2021/12/activista-gitana-feminista-defiende-a-los-machos-gitanos/>] (2022ko urtarrilaren 2an kontsultatua)

AMUGE (2021): «Nos persiguen. La criminalización hacia las mujeres gitanas en establecimientos comerciales».

Antigitanismoaren aurkako Aliantza (2021): «Ensayo contra el antigitanismo», Ismael Cortés; Patricia Caro eta Markus End (koord.) «*Antigitanismo. Trece miradas*». *Traficantes de sueños*, Madril, 21-39.

Caro, Patricia eta Montoya, Yurena (2021): «Cayardó como estrategia para eliminar el sexismo antigitano», Ismael Cortés; Patricia Caro eta Markus End (koord.) «*Antigitanismo. Trece miradas*». *Traficantes de sueños*, Madril, 263-279.

Cho, Sumi; Crenshaw, Kimberlé Williams eta McCall Leslie (2013): «Toward a field-of-intersectionality studies: theory, applications, and praxis». *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 38 (4), 785-810.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2018): «XI. legegintzaldiko Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia (2018-2020)», Eusko Jaurlaritza. [Online eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/59_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/Ijito%20Herriarekiko%20Euskal%20Estrategia.pdf] (2021eko uztailaren 2an kontsultatua).

Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritza: «Prestazio eta laguntzen katalogoa, genero-indarkeriaren emakume biktimentzat», Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza [Eskuragarri hemen: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/vcm_subvenciones_prestaciones/eu_def/adjuntos/catalogo.prestaciones.ayudas.destinadas.mujeres.victimas.violencia.genero.eus.pdf] (2022ko urtarrilaren 13an kontsultatua)

ECRI (2011): *Europako Batzordeak argitaratutako politika orokorraren 13. gomendioa (ECRI), antiijitotasunaren eta erromani/ijitoen aurkako diskriminazioaren kontra borrokatzeari buruzkoa*. Europako Kontseilua, Estrasburgo.

EMAKUNDE (2018): «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana». Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

EMAKUNDE (2018): «EAEko genero-indarkeriaren biktimei emakumeen ematen zaien arretari buruzko baliabideen mapa». Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

FAGA (2015): «*Guía de recursos contra el Antigitanismo*». [Eskuragarri hemen: https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/biblioteca/1457610965_ca002_guia_Antigitanismo.pdf] (2021eko uztailaren 6an kontsultatua).

Federaciòd'Associacions Gitanes de Catalunya (2021): «*Mujeres gitanas ante las injusticias. Guía práctica contra el antigitanismo de género*». [Online eskuragarri hemen: <file:///Users/taniamartinezportugal/Desktop/Gui%CC%81a-antigitanismo.pdf>] (2021eko uztailaren 8an kontsultatua).

FRA (2017): «Informe sobre los derechos fundamentales 2017». FRAREN irizpenak.

Garcés, Helios (2016): «*El racismo antirom/antigitano y la opción decolonial*». *Tabula Rasa*, 25, 225-251.

Gómez Alfaro, Antonio (2016): «*Escritos sobre gitanos. Presencia Gitana*». [Eskuragarri hemen: http://aecgit.pangea.org/pdf/30jornadas/LIBRO_ALFARO.pdf]

Heredia, Sandra (2021): «*Antigitanismo, género y medios de comunicación*». *Viento Sur*, 175, 2021eko apirila, 5-15.

MALO, Marta (ed.) (2004): «*Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*», Traficantes de sueños, Útiles2, Madril.

Martínez Portugal, Tania (2020): «*Haciendo frente a las epistemologías heteropatriarcales: elementos teórico-metodológicos para un análisis feminista de la violencia contra las mujeres*». *Investigaciones Feministas*, 11(2), 333-342.

Nicolae, Valeriu (2007): «*Towards a Definition of Anti-Gypsyism*». Nicolae, Valeriu eta Slavik, Hannah. «*Roma Diplomacy*». International Debate Education Association, New York.

NBE (1992): «*Declaración sobre los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas*». Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 47/135 Ebazpena.

Oprea, Alexandra eta Matache, Margareta (2021): «*Recuperar la narrativa: una evaluación crítica de la terminología en la lucha por los derechos de los romaníes*». Ismael Cortés; Patricia Caro eta Markus End (koord.) «*Antigitanismo. Trece miradas*». Traficantes de sueños, Madril.

Osakidetza (2019): «Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida». Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Europako Parlamentua (2013ko abenduaren 10a): *Ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalen Europako Esparruan generoarekin lotutako alderdiei buruzko ebazpena* (2013/2066 [INI]). Estrasburgo.

Europako Parlamentua (2017ko urriaren 25a): *Batasunean ijitoak gizarteratzeari dago-kionez oinarritzko eskubideekin lotutako alderdiei buruzko ebazpena, antiijitotasunaren kontra borrokatzea* (2017/2038 [INI]). Estrasburgo.

Europako Parlamentua (2019ko otsailaren 6a): *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2020tik aurrera ijitoak Gizarteratzeko Estrategia Nazionalean Europako Esparrua sendotzeko eta antiijitotasunaren kontrako borroka indartzeko beharrari buruzkoa* (2019/2509 [RSP]). Estrasburgo.

Rodó-Zarate, María (2021): «Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones». Bellaterra, Bartzelona.

Sierra, María eta Río Ruiz, Manuel Ángel (2017/04/11): «Cuando la violencia contra los gitanos se disfraza de ciencia». Contexto [Eskuragarri hemen: <https://ctxt.es/es/20170405/Firmas/12071/gitanos-minoria-persecucion-violencia-ciencia.htm>] (2022ko urtarrilaren 10ean kontsultatua).

VVAA (2022): «Paquete de servicios esenciales para mujeres y niñas que sufren violencia», ONU Mujeres. [Online eskuragarri hemen: <https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2015/12/essential-services-package-for-women-and-girls-subject-to-violence#view>](2021eko uztailaren 2an kontsultatua).



EMAKUNDE - Emakumearen euskal erakundea

Manuel Iradier 36
01005 Vitoria - Gasteiz (Araba)

Tf: 945 01 67 00
Fax: 945 01 67 01

emakunde@euskadi.eus

AMUGE - Euskal Herriko emakume ijitoen elkartea

Txotena Kalea 13, lonja 3-4
48004 Bilbao (Bizkaia)

Tf: 946 03 85 57

amuge.elkartea@gmail.com

